



Avanzadako tunelak
estaltzeko proiektuaren
idazketa are gehiago
atzeratuko da ▶6

Paula Kasares soziolinguista
nafarragaz berba egin dugu euskarak
eskola-heziketan daukan garrantziaz,
matrikulazioa hastear dela ▶16



hiruka

Uribe Kostako astekaria



2. zenbakia

2015eko
urtarrilaren 29tik
otsailaren 4ra arte

Agate Deuna bezpera zain makilak eskuan



Dozenaka uribekostar
plaza zein kaleetara
aterako dira *santagedako*
doinuak kantatzeko. ▶11

SAKONEAN URDULIZ

Urduliz 1930-1939



Koldo Somokueto historialari urduliz-
tarrak bere jaioterriaren 30. hamarka-
dako historia jaso du, II. Errepublikari
eta Gerra Zibilari errepasoa eginez.
Horretarako, garaiko lekukoen testi-
gantzak batu ditu, baita artxibo ugari
bisitatu ere. ▶22

HERRIZ HERRI BARRIKA

San Blas jaia otsailaren 3an

Urtero legez, Barrikan Blas
Deunaren eguna ospatuko dute
Andra Mari elizan eta Elorduy
egoitzan.

Egunean zehar, Barrikara hurbiltzen
diren guztiek San Blas hariak eta er-
rokillak erosteko aukera izango dute
elizarako bidean eta inguruetan egon-
go diren postuetan. ▶8

HERRIZ HERRI ERANDIO

Aurtengo aurrekontua 29,8 milio eurokoa da

Azken lau urteotan %15,5
jaitsi da udal erandioztarraren
aurrekontua, krisialdia
kudeatzeko helburuagaz. ▶5



Egunero 24 orduz Uribe Kostako albiste gehiago gure atari digitalean: www.hiruka.eus

Gizarte-laguntzak 130.000 eurora handitu dituzte

Udalak 130.000 euro bideratuko ditu etxebizitza-beharrei aurre egiteko, iaz baino 30.000 euro gehiago. Laguntza horiek bazterketa-egoerak saihestea eta familien gizarteratzea sustatzea dute helburu. Eskakizunak aurkezteko epea abenduaren 18ra arte egongo da zabalik, eta laguntzak aurrekontu-kreditua agortu arte emango dira. Urtean gehienez 3.000 euroko laguntza emango da; baina eskutako kontzeptuen artean ostatuarena balego, laguntza 4.500 eurora igo ahal izango da. Eskatzaileek Udaleko Gizarte Langilakaz aurretik adostutako arreta pertsonalizaturen batean parte hartu beharko dute. Izan ere, laguntzek aparteko izaera dute eta egoera zehatz batzuk hobetzeko tresnak dira. Eskatzaileek ezingo dute eduki ondusun higiezinik %100eko jabetzan, eta aukera bakoitzean ezarritako baldintza jakin denak bete beharko dituzte. ◀

Info +: getxo.net

Egur-taila ikastaroa egingo dute Algortan

Egizu Getxo euskaldun! taldeko ki-deak gustura ibili dira mailukada artean; hori dela eta, egur-taila ikastaroagaz jarraitzea erabaki dute. Hala, beterranoek zein hasiberriek otsailaren 16tik maiatzaren 25era arte egurra moldatzeko aukera izango dute. Interesa dutenek otsailaren 11ra arte eman ahalko dute izena. Tailerrak Algortako Karitate kaleko 1 zenbakian dagoen Aldai Patronatuan izango dira, astelehenetan arrastiko 18:30etik 20:30era, Juanra Muela irakaslearen gidaritzapean. Matrikula 120 eurokoa da; ohi den legez, Berbalagun eta Bizarra Lepoaneko kidee izanda, merkeagoa: 90 eurokoa. ◀

Info +: 619 935 541 / egizugetxo@gmail.com

Mintzakuadrillakoak akatsen beldur barik!



Enara Gantxegi, Asier Barruetañeña eta Olatz Laka.

Euskaraz egin edo dakitena hobetu nahi duten gazteek badute plana Getxon: Mintzakuadrillak. Otsailaren bigarren hamabostaldian jarriko dira martxan taldeak.

Gazte askok badaki euskaraz, baina, dirudienez, egunero-kotasunean aritzea edo jardutea kostatzen zaie. Hori dela eta, "arazoari" aurre egin guran, Mintzakuadrillak egitasmoa jarri dute martxan Euskal Herriko hiru udalerritan: Donostian, Gasteizen eta Getxon.

Asier Barruetañeña, Getxon proiektuaren bultzatzaileetakoa denak azaldu duenez, "egun Berbalagun egitasmoa dugu martxan bertan. Udalerrian ikerketa bat egin zen bertoko gazteek aipatutako proiektua ezagutzen zuten jakiteko, eta emaitzak ikusiterakoan, jakin genuen gazte kopuru handi batek ez zekiela zer zen, eta zekitenek zaharrakaz eta frikiakaz lotzen zutela!".

Hori hala, gazteei begirako zer edo zer egin behar zutela erabaki eta Topaguneak Mintzakuadrillak proiektua sortu zuen, "euskara gazteengan pizteko eta erabiltzeko, bai kuadrillan, bai egunerokotasunean". Hasieran mintzakuadrillak hiru udalerritan bakarrik jarriko dira martxan, "ikerketa balitz moduan egiten ari baita". Hala ere, harrera ona izanez gero, proiektua beste herri batzuetara hedatuko dela jakinarazi dute arduradunek.

Zabaltze-aroa

Une honetan, Barruetañeñagaz batera, Enara Gantxegi, Olatz Laka eta Haizea Lasa gazteak dabilta ekimena zabaltzen. Horretarako, kartelak, pegatinak, sare sozialak eta bideo bat erabili dituzte. Bestalde, joan den

asteen Algortako gazteen txokoetatik pasatu ziren proiektuaren nondik norakoak azaltzeko. Aurrera begira, gainera, gazteak dituzten elkarteetatik ere pasatzen ahaleginduko dira; "egin behar duguna da proiektua ahalik eta gazte gehienengana helaraztea".

Mintzakuadrillak otsailaren bigarren hamabostaldian martxan jarriko direla aurreikusten dute; "ideia da sortzen diren talde-kuadrillak asteen behin euskaraz egiteko biltzea, bakoitzak aukeratzen duen orduan eta lekuan".

Bestalde, horietan parte hartzen duen gazteakaz hiru ekintza osagarri egingo dituztela iragarri du Barruetañeña, "esate baterako, sagardotegi batera joatea Donostiako eta Gasteizko neska-mutilakaz, eta Getxo mailan, surf ikastaroa, paintball irteera edota tailerren bat". Horietarako datak oraindino ez dituzte zehaztu, mintzakuadrillakaz erabakiko dute noiz egin.

Egitasmoak mugimendu izaera izan nahi du, "elkartekaz eta udalakaz harreman bakoa"; eta edozein gaztek parte hartu ahal izango du, aldez aurretik izena emanda. ◀

Info +: www.mintzakuadrillak.eus
Harremanetarako: 619 935 541
getxo@mintzakuadrillak.eus





**Iñaki
Bítxitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellebxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

Getxo

"Espezializatuak diren obrak lantzen ditugu"

Areetxo Ganbera Abesbatzaren izena 'Areeta' eta 'Getxo' batzetik sortu dute; 16 kidek osatzen dute, eta lan ezagunez gainera, goi mailakoak ere abesten dituzte.



25 kide izatera heldu gura du Areetxo Ganbera Abesbatzak. AREETXO GANBERA ABESBATZA

Hainbat abesbatzatik etorritako kideek osatzen dute Areetxo Ganbera Abesbatza. Manuel Torre Lledo maisuaren gidaritzapean, ezohiko taldea sortu dute. Areetxokoek lan ezagunak lantzeaz gainera, obra espezializatuak jorratzen dituzte.

Duela hamabost hilabete sortu zenuen Areetxo Ganbera Abesbatza...

Bai, 2013ko urriaren 2an beste abesbatza batzuetatik etorritako hainbat kide bildu ginen, bestelako abesbatza bat sortzeko asmoz, profesionalagoa. Manuel Torre Lledok 37 urte zeramatzan Ondarreta Abesbatza zuzentzen, eta hura utzi zuenean, beragaz elkartu eta ganbera-abesbatza sortzea erabaki genuen guztion artean.

Zenbatek osatzen duzue taldea?

Gaur egun 16 gizon-emakumek osatzen dugu abesbatza. Gainera, piano-jolea, zuzendaria eta artxibo musika-

laz arduratzen dena ere bai.

Talde irekia zarete, interesa dutenek zer egin behar dute?

Jende berria gurera hurbiltzea gura dugu; 25 kide izatea nahiko genuke. Gobela kiroldegiko kafetegiaren goiko solairuan entseatzen dugu astelehenero eta eguaztenero, 20:00etatik 22:00etara. Nahi duenak ateak zabalik ditu gugaz lan egiteko. Aukeran, ego-kiagoa da ahalik eta gazteen izatea, baina 20 urtetik 60 urtera bitarteko edozeinek parte har dezake. Hala ere, beharrezkoa litzateke musika-ezagutza izatea, behintzat partitura bat irakurtzen jakitea. Abesbatza batean aritzea oso aberasgarria da, lan egiteko gogoak izanez gero. Hala, guregana hurreratzeko gonbitea luzatzen dugu.

Zelako abestiak jorratzen dituzue?

Mota guztietako obrak lantzen ditugu. Hala, oso ezagunak diren lanez gain, programa bereziak egin nahi ditugu,

ezagunak ez diren edota normalean abesten ez diren obrakaz. Espezializatuak diren obrak egin nahi ditugu, goi maila artistikokoak, eta batez ere, ezezagunak; bestelako abesbatzek jorratzen ez dituztenak. Horretarako, ikerketa lana egin behar dugu, obra berriak ikasteko eta lantzeko, euskaraz zein bestelako hizkuntzetan.

Manuel Torre Lledo da abesbatzako zuzendari, ezta?

Bai, abesbatzen munduan eskarmen-tu handikoa da. Ondarreta abesbatza zuzendu du 37 urteotan, eta Ondarreta dagoen lekuan dago, egindako lan handiaz gain, berak jakin izan duela-ko zelan lan egin. Hala ere, Areetxo Ganbera Abesbatza guztion lana da garrantzitsua, denok egiten dugu lan abesbatza berezi bat izateko. Getxoko eta Bizkaiko erreferentziazko abesbatza izatea gura dugu, Manuel Torre Lledoren gidaritzapean. ◀

Harremanetarako: 655 741 297

Romo ikastetxeko aparkalekua 660 auto inguruk erabili dute

Egunero 165 auto inguruk erabili zuten Romo herri ikastetxeko jolastokian 2014ko abenduaren 24an, 25ean eta 31n eta 2015eko urtarrilaren 1ean jarritako aparkalekua. Garai horretan auzoan aparkatzeko izan ohi diren arazoak eta Romoko Auzo Elkar-teak egindako eskaera aintzat hartuta, abiarazi zuen Udalak behin-behineko ekimen hori. "Jolastokia beteta egon zen, batez ere Gabon-gau egunean eta Eguberri egunean, eta ia auto bakar bat gehiago ere ez zen kabitzen. Egoerak hala eskatzen duenean, berriro antzeko neurriak hartzeko aukera aztertuko dugu", azaldu du Josu Loroñok, Udaleko Komunikazio zinegotziak. ◀

Sexologiaren informazio bulegoak jarraituko du

Sexologiako Informazio eta Aholku-larritza Bulegoaren zerbitzu-esleipena berritu du Udalak, urte baterako eta beste urtebetez luzatzeko aukeragaz. Aipatu bulegoa Martikoena kaleko 16. zenbakian dago eta sexu-ari buruzko mota guztietako galderei erantzuten jarraituko du. Horren helburua adin guztietako pertsonen laguntza ematea da, sexualitateaz gehiago goza dezaten, norberaren nahi eta interesen arabera sexu zailtasunak gaingintzeko; "zalantzek, aurreiritziek edo informazio faltak zailtasunak dakartzate norberaren sexualitatea eraikitzeke edo pertsonen arteko harremanetarako", azaldu du Keltse Eiguren Berdintasun Zerbitzuko zinegotziak. Bulegoak antisorgailuei buruzko oinarritzko informazioa ere emango du. Kontsultak sexologiaren profesionalek artatzen dituzte, eta konfidentzialak dira. ◀

info +: sexuinfo@getxo.net eta 94 466 01 37

GetxoGas

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



Getxo



Sener enpresa izan da onuradunetako bat

Enplegua sustatu asmoz, laguntzak

Iaz 48 lagun kontratatu zituzten Udalerrian enplegua sortzeko Getxoko enpresei zuzendutako diru-laguntzen programari esker. Horietatik, 168.049,03 euro udalerriko enpresa, denda eta profesionalei zuzendu ziren, besteak beste; eta horietan 42 lagun kontratatu zituzten (6 hilabeterako 11 kontratu eta 3 hilabeterako 31 kontratu).

Bestalde, zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko aritzen diren enpresa eta irabazi asmo bako erakundeentzat 60.277,90 euro bideratu zituzten. Horietara, 6 hilabeterako 6 kontratu subentzionatu ziren. Beste 17 kontratu aurkeztu ziren, baina horiek atzera bota behar izan zituzten, gehienak aurretik ezarritako oinarrietan

azaltzen ziren baldintzak betetzen ez zituztelako.

Getxoko Udaleko webgunean publikoki kontsulta daitezkeen akten arabera, besteak beste, honako enpresa hauek jaso dituzte kontratazio-laguntzak: Utopian Getxoko Antzerki Eskola, Abando Conservacion de Inmuebles, Berbako Uribe Kostan Irratigintza Euskalduna Sustatzeko Elkartea, Jose Luis Campis Baez, Francisco Javier Amatrain Iturralde, Euskafolding Montajes SL eta armagintzan diharduen Sener Ingenieria y Sistemas SA.

Bestalde, Lanbidek (Euskal Enplegu Zerbitzua) 2015. urtean enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdi berri bat egitea aurreikusten du. ◀

HAPOn berrikusteko lantaldearen erdia baztertu egin da

Getxoko HAPOn berrikusteko Udalak antolatutako lantaldea osatzen zuten 40 kideetatik, 21ek uko egin dio jarraitzeari. Ohar batean azaldu dutenez, "sinetsi genuen posible zela parte hartzea eta gure ekarpenak aintzat hartzea, hainbat ikuspuntutatik egindakoak ere, gure herria datozen urteetarako planifikatzea bezalako zeregin garrantzitsuan". Hala ere, norbanakoek zein elkarrekin defendatutako hainbat proposamen atzera bota ditu erredakzio-taldeak, lana amaitutzat eman gura duten une berean. Hori dela eta, taldetik aldentzea erabaki dute, "prozesu honek iruzur egin digu eta, beraz, ez dugu nahi gure izena bertan agertzea".

Gazteei zuzendutako lan eskubideen gidaren aurkezpena

Gazteei zuzendutako lan-eskubideen gida aurkeztuko dute Uribe Kostako Ernaik eta eskualdeko LAB-ek, otsailaren 5ean, eguena, 19:00etan Algortako Abian kultur elkartearen. Ernai gazte antolakundearen eta LAB sindikatuaren arteko lankidetzaren emaitza da aipatu lana; eta horretan, gazteek lan munduan dituzten eskubideak jaso dituzte.

Gazteontzako Lan Eskubideen Gida kaleratu berrian, lan merkatura sartu aurretik eman beharreko pausoetatik hasita lan-kontratua amaitzen den artekoak azaltzen dira, baita kontratu mota desberdinak eta hitzarmen kolektiboak ere. ◀

Info +: www.ernaigazte.cc



Gobernu Taldeak 1.020.000 euro gehiago bideratuko ditu proiektura

Aurrekontu-aldaketak Getxo Antzokirako

Gobernu Taldeak urtarrileko Oso-ko Bilkuran jakinarazi du aurrekontu-aldaketak egin dituela, aurrein inauguratu behar zen baina 2017ra arte luzatuko den, Getxo Antzokiari finantziazio handiagoa eskaintzeko: 1.020.000 euro; gainera, beste 205.000 euro bideratuko ditu Algortako Musika Eskola berriko musika instrumentuak erosteko.

Hori dagokionez, "Gobernu Taldeak beste departamentuetako diru-politsetatik zein aurreko urteko soberakinetatik ateratako dirua" dela salatu du

Getxoko EH Bilduk. Halaber, "onartezina" deritzote "etxebizitzetarako izan beharko lukeen diru hori Getxo Antzokia bezalako makroproiektu batean erabiltzeari".

Inguruaren urbanizazioa

Getxo Antzokia-Musika Eskolako ingurunea urbanizatzeko eta zolatzeko lanak azken txanpan daude. Ingurune horrek 4.000 metro koadroko azalera du, bere barruan hartzen ditu: San Nikolas enparantza, eliza inguruak eta kulturagune berriaren kanpoaldea. ◀



Maratila

DEIANE ARRIETA
ELAko eskualde-arduraduna

Jroña que jroña

Bazen telebista iragarki bat greziarren azken altxorra jogurta zela zioena. Emakume edadetua zuen protagonista eta bekokia ximurtuz eta haserre esaten zuen artelanak eta olinpiadak lapurtu ostean, jogurta ere lapurtu nahi zietela.

Ordutik hona, jogurta ez ezik, modu duinean bizitzeko eskubidea bera ere lapurtu die jatorri europar eta interes merkantilak dituzten majadero kuadrillak. Baina ez dute dena galdu: borrokarako grina eta norabidez aldatzeko ilusioa eurenak dira. Eta horixe da greziarren altxor baliotsuena. Beharrezkoa bestelako gizarte eredua eraikitzeko. ◀

SARTU GURE
WEB BERRIAN
www.cianoplan.es
902 103 763

kartelgintza



inprimategia



kopisteria



Erendio

Gerrikoa beste koska bat estutu dute

Azken lau urteotan 5,5 milioitan jaitsi dira Erandioko aurrekontuak, %15,5, krisialdia kudeatu asmotan. Gobernua eta oposizioa ez datoz bat jarri beharreko konponbideak finkatzean eta udal hauteskundeak ate joka daude.

Pasa den urte amaieran onartu zuen Erandiok 2015erako aurrekontua: 29,8 milioi euro, azken urteotako meheena. Joseba Goikouria alkate jeltzaleak onartu duenez, "hauek ez dira denok onartu nahiko genituzkeen kontuak", "bizi dugun ziurgabetasun ekonomiko eta finantzarioen" erakusle baino. Izan ere, azken urteotan legez, 2015 "ere urte zaila" izango delakoan dago. Halere, Udalak "zorrik ez" duelako eta diru-iturririk nagusiena, foru Udalkutxa, osasuntsu dabil-eta urtea igarotzeko arazo larri izango ez dela uste du alkateak.

Hori ahalbidetzeko, baina, "arduraz" jokatu eta "baliabideak optimizatu" behar izan dituzte, inbertsio atalak beste behin lur jo duela. Heren batean jaitsi da iazko kontuakaz alderatuta. Trukean, "oinarrizko zerbitzuak mantendu eta gastu soziala handitu" dute, Goikouriaren esanetan.

Bere aldetik, Itsasne Agirre Ogasun zinegotziak gogoratu du Aurrekontu Egonkortasunerako Legeak zenbait muga ezarri diela. Dena den, bere ustez, "garrantzitsuena zerbitzuak mantentzea da. Pertsonengan eta bizi kalitatean jarri dugu arreta". Ildo horretan, Erandio Landako San Jose auzoan haur parke berria instalatzeko partida onartu dute. Horregaz batera, Altagako liburutegia lekuz aldatu eta hainbat zahar-berritze lan egingo dituzte kirol-ekipamenduetan zein ur edangarriaren sareetan. Auzoetara bideratzen den dirua ere izango da.

Parte-hartzean herren

Juan Otermin PSE-EEren bozeramalearen iritziz, aurrekontu hauek "ez dira Erandioko herriak behar dituenak". Bere ustez, "kontinuistak dira eta pertsona altxatzeko baino ez daude pentsatuta, iazkoak eta aurreko urtekoak legez". Halere, sozialistak abstenitu eta aurrekontuak onartzea bermatu zuten, kontrakoa "egonkortasun eza" zabaltzea delakoan, "legealdiaren

bukaeran alternatibarik aurkezteko denborarik ez dago-eta". Udal Gobernuak 2013an PSE-EE-gaz adostutako Berrikuntza Plana garatu ez izana txarretsi eta aurrekontuen prozesua era parte-hartzaileagoan bideratzea aldarrikatu zuen. Era berean, gastu soziala handitu eta Elikagaien Bankua babesteko, Estatuari laguntzak ez eskatzea eta Udala ez zorpetzea kritikatu zituen, are gehiago udal kutxan ia dirurik ez dagoenean. Emandako datuen arabera, 2010ean soberakinak 3,5 milioiokoa ziren eta egun 400.000 euro inguru, "hobetzeko aurreikuspenik gabe". Bestalde, Altagan eta Astrabuduan autoa aparkatzeko arazoa konpontzeko ikerketa bat eskatu zuen.

Joseba Goikouria: "hauek ez dira denok onartu nahiko genituzkeen kontuak"

Begoña Artze EH Bilduko eledunak ere herritarren parte-hartzea faltan sumatu du prozesu osoan zehar. Horren ondorioz, salatu zuen udal aurrekontuek ez dituztela "biztanleriaren erdiaren eskubideak bermatzen, genero ikuspegia" aintzat hartu barik egin direla eta "emakumeok jasaten dugun bazterkeriari aurre egiteko" baliabide eta neurri "egokirik" aurreikusten ez dutela iritzita.

Horrez gainera, EH Bilduk arrakalak ikusi zituen kontu publikoei, errentako etxebizitza sozialak eta Udalak etxebizitzaren erostea planteatzen ez dituelako. Kulturen, Altagako liburutegia eta Josu Muruetako ekipamenduak mantentzeko inbertsio handiagoa eskatu zuten. Amaitzeko, "zerbitzu publikoaren eta lan duinaren" izenean, kalitatezko enplegu publikoa sortzea eta ez suntsitzea aldarrikatu zuten. ◀

Inbertsioen bilakaera

■ AURREKONTUA GUZTIRA
■ INBERTSIOAK

%15,1

5.348.315 €

35.322.000 €

2012

%9,3

3.032.500 €

32.500.000 €

2013

%7,3

2.238.500 €

30.430.000 €

2014

%5,1

1.523.500 €

29.840.000 €

2015

Aurrekontuak 2015

SARRERAK

Foru transferentziak	15.118.501€
Zuzeneko zergak	6.820.000€
Tasak eta bestelakoak	5.463.770€
Inbertsio errealak besterentzea	955.000€
Bestelako transferentziak	929.729€
Zeharkako zergak	400.000€
Ondare sarrerak	121.000€
Kapital transferentziak	26.000€
Finantza aktiboak	6.000€

IRTEERAK

Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak	14.470.082€
Pertsonal gastuak	12.109.418€
Ohiko transferentziak	1.637.000€
Inbertsio errealak	1.523.500€
Finantza pasiboak	60.000€
Gertakizun etarako funtsa	25.000€
Finantza aktiboak	10.000€
Finantza gastuak	5.000€



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com



LUBERRI
Basolanak S.L.
LOREZAINZA

- **Soropila Ezartzea**
Luzerria prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsakko organitze lanak eta beste lanak.
- **Soropila zaintzea eta mantentzea**
Mazeta, ureztatzea, organitzea, eguraketa, aratzea eta destinkatzea, belarrikatzea, soropila gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.
- **Inausketak**
Hartzeko, mantentzeko, beritzeko, zuhaika apaingarriak inauszea, esabateko inausketak.
- **Barrikaldeen lorategi bihurtzea**

Axpe ibaiertza 28A behelko solairua B12 lokala (ERANDIO) Megi: 629 41 18 38 - Tf: 94 467 17 13 - Faxa: 94 467 42 41
luberril@euskalnet.net - www.luberril.biz



LABetik atera berri

IRATXE AZKUE
LABeko Eskumaldeako idazkaria

Lan-munduan ere euskaraz egin dezagun

Kaixo irakurle!, Ongi etorri Hiruka! Eta eskerrik asko euskal langileoi ahots propioz hitz egiteko aukera emateagatik!

Lehenengo zutabe hau aprobetxatu nahi dut hain justu, urtarrilaren 23an, LABek lan mundua euskalduntzeko aurkeztu berri duen proposamen eraberritua zuri, zuei, aurkezteko: LANEUS, hain zuzen ere.

Urte asko pasa dira urratsa eman eta aurreneko plana martxan jarri genuenetik. Urte emankorrak izan dira, bai sindikatuan baita lan munduan ere, baina garai zailotan egindakoak bultzada berria eskatzen du.

Bakoitzak bere esparrutik ahal duena eman, euskal langile mugimenduak ere, eragile eta aktibo izan behar du lan arloaren euskalduntzean. Langileok hizkuntza eskubideen jabe gara eta gure lan zentroetatik heltzen diogu erronkari, izan ere langileok eskubidea dugu euskara ezagutzeko, gure lan jarduera zein lanbidea euskaraz burutzeko eta lan harremanak euskaraz garatzeko. Hauek guztiak eskubide pertsonalak (langile bakoitzarenak) eta kolektiboak (herriarenak, langile-riarenak) dira eta gure lan postuetatik normalizazioa modu planifikatuan egiteko lan egiten dugu. Hori dela eta LANEUS, ildo estrategiko eraberrituan lan munduaren euskalduntzea Ekintza Sindikalaren baitan kokatu dugu, gure jardueraren baitan, eta ez zerbait isolatu edota negozioazio kolektibora mugaturiko aldarrikapen gisa. Zentzu horretan langile klasearen baitako adostasunak eraiki behar dira, ekintza sindikalaren bidez akordioetara heltzeko bidea egin behar dugu eta eremu sozialean ere eragin behar da.

“Lan munduan euskara erabiltzerik ez badugu ez dugu euskaraz bizitzerik izango”. ◀

Leioa



Avanzadako errepideak Leioa bitan zatitzen du.

Avanzada estaltzeko lanak oraindino urrunago daude

2014ko lehenengo sei hilekorako idatzita behar zuen errepidea estaltzeko proiektuak. Ostera, beste zortzi hilabete eman dizkio Bizkaiko Foru Aldundiak Senerri. Atzerapen horri 2013ko azaroan onartutako luzapena ere gehitu behar zaio.

Avanzada errepideko tunelak estaltzeko proiektuak atzerapen luzeagoa jasango duela onartu du orain gutxi Herri-Lan eta Garraioetako diputatu Itziar Garamendik. Aldundiko arduradunak jakinarazi duenez, proiektua idatzi behar duen Sener enpresak zortzi hilabeteko luzapena eskatu zuen joan den urrian, azkeneko dokumentua prestatu ahal izateko. Luzapen hori, 2013ko azaroan foru erakundeak eman zuen bederatzi hilabeteko beste luzapen bati gehitu behar zaio. Obraren "konplexutasunari" eta Avanzadako proiektua une honetan burutzapen fasean dagoen errepideen II. Lurralde Sektore Planagaz "koordinatu" beharrari egotzi die atzerapen hori Garamendik. Ez dirudi luzapenak aurrekontu igoerarik eragingo duenik, hala adierazi du behintzat foru diputatuak. Aldundia- ren Herri-Lan eta Garraio Sailak 2011n esleitu zizkion Senerri idazketa lanak, 1.552.606 euroren truke.

Jesus Isasi PPren bozeramaileak eskatuta, Batzar Nagusietako urtarri- laren 16ko bilkuran eman zituen azalpenak Itziar Garamendik. Azalpenok ez zituzten oposizioko beste alderdien ordezkariak asebeteta utzi; besteak beste, kritikatu egin zuten "urte asko eta asko" igaro direla eta oraindik ez

zaiola konponbiderik eman Bizkaiko errepideetako puntu "beltz" den horri. Are gehiago, Leioako bizilagunen aldarrikapen nagusietako bat izan dela gogora ekarri zuten, eta horren albotik, herritarrek jasotako 3.000 sinadura baino gehiago izan zirela tartean.

Isasik atzerapena kritikatu zuen. Gainera, proiektua geldidagoela ere salatu zuen. "Dakigunez, enpresak proiektu honetan lan egiteari utzi egin dio", esan zuen; ostera, Garamendik ezeztatu egin zuen hori. Popularren ordezkariaren iritziz, Aldundiak "ez du proiektua aurrera eraman gura", eta, hori helburu, errepideen Lurralde Sektore Planaren aitzakia erabiltzen duela.

EH Bilduren aldetik, Fernando Larrinaga bozeramaileak "horrelakogai garrantzitsuenetan itxaropen faltsuak" sortzea penagarria dela esan zuen.

Bestalde, Batzar Nagusietako talde jeltzaleak, Aldundiak proiektuaren idazketan aurrera egiteko daukan "borondatea" azpimarratu zuen, eta luzapen biak arrazoitze orduan, "oso lan konplexua dela" eta "ezin dela beste errepide proiektuak alderatu" adierazi zuen, "trafiko handia daukala eta hiri egituraren barruan sartuta dagoelako". ◀

Bi mila lagun familia ikuskizunetan

Kultur Leioako arduradunen arabera, 2014 urtea "ona" izan da familia leioaztarrentzat, aipatutako udal eraikinean "etxeko txikienak protagonista izanda, kalitatezko ikuskizun ugarigaz gozatzeko aukera egon delako". Tokiko arduradunek emandako datuen arabera, 2.000 ikusle gerturatu dira 2014. urtean Kultur Leioan programatu diren urtebete eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako 13 ikuskizunetara. Besteak beste, dantza, antzerkia, zirkua eta multimedia-ikuskitzuna izan dituzte gozagarri neska-mutilek eta haien gurasoek. Ikusleek egindako balorazioa "oso positiboa" izan da: batezbesteko 8,6ko puntuazioa eman diote Kultur Leioako familia osorako ikuskizunei.

"Kultur Leioan jarritako konfiantzak eta ikusleek gure ikuskizunei emandako puntuazio onak familiei begirako ikuskizunak programatu eta zaintzearen aldeko apustua berrestera eramaten gaitu", azaldu dute tokiko arduradunek. Hala, 2015eko emaitzak ere horiek bezain onak izatea nahiko lukete eta horretara bideratu dute aurtengo kultur eskaintza.

Halaxe, aurren, besteak beste, *Kixote* antzezlan eskainiko du Markeliñe euskal taldeak, otsailaren 15ean; 5 urtetik gorako haurrentzako ikuskizuna da hori. Horrez gainera, martxoaren 15ean, *Erpurutxo* antzezlan taularatuko du Teatro Paradisok; *Pulgarcito* ipuin klasikoaren euskarazko bertsioa, Iñaki Rikartek zuzenduta. Eta martxoaren 29an, *Auzokoak* izenburuko euskarazko dantza-ikuskitzuna taularatuko du Traversée Konpainiak. Ikuskizun horiek guztiak Kultur Leioako auditorioan izango dira, denak arrastiko 18:00etan. ◀

Kontsumoari buruzko kexak udaletxean

Orain dela gutxira arte, Kultur Leioan kokatuta zegoen Kontsumitzaileen Informazioarako Udal Bulegora (KIUB) jo behar izaten zuten leioaztarrek, kontsumoaren inguruko kexak aurkezteko, zalantzak argitze-ko edo aholku eskean; baita beste hainbat kudeaketa kontu-erako ere. Bada, Udaletik azaldu dutenez, Kultur Leioara baino, aurrerantzean udaletxera bertara (Elexalde kalea, 1) jo beharko dute herritarrek aipatutako kontsumoaren inguruko tramite horiek egiteko. ◀

info +: erregistro@leioa.net / 944 008 000

Sopela

Atxabiribil etorbideko bidegorri berriaren lanak hastear dira



Autoek 30 kilometro orduko abiadura-muga izango dute.

Espaloi zabalagoak eta bidegorria izango ditu Atxabiribil etorbideak maiatzetik aurrera. Udalak auzo-bilera antolatu du otsailaren 5ean Kukullun.

Maiatzetik aurrera seguruagoa izango da txirringaz Atxabiribil hondartzaraino eta Sopelmar auzora heltzea. Udalak otsaileko lehenengo astean hasiko ditu Atxabiribil etorbideko berrantolatze-lanak, eta bost hilabetez luzatuko dira. Epeak betetzen badira, beraz, udarako bidegorria prest egongo da.

Beren-beregi, lanak kanping-eko aparkalekua eta hondartza lotzen dituen bidean egingo dira. Eskuineko aldean (hondartzara jaisten) bidegorria sortuko dute, norabide bietan (jaisteko eta igotzeko). Errepidearen ezkerreko aldean, berriz, gaur egun dagoen espaloia mantendu eta zabalago bihurtuko dute (kasu batzuetan 2,3 metrorainokoa). Autoek, oster, 5 eta 5,5 metro arteko zabalera izango dute, eta ezingo dute 30 kilometro orduko abiadura-muga gainditu. Izan ere, puntu batzuetan errepidea estu egingo da, eta autoek abiadura jaitsi beharko dute. Bidegorria errepidetik babesteko helburuagaz, 40 zentimetroko erdibitzailea jarriko da, errepidearen eta bidegorriaren artean.

Horrez gainera, lanok aprobetxatuz, etorbideko azpiegituretan hainbat hobekuntza egingo dituzte: argiak aldatu, saneamendua berriztu, marke-

sina lekuz aldatu, eta abar. Lan horien aurrekontu osoa 400.000 euro baino gehiagokoa da.

Sopelako Udalak argitu duenez, lanon helburua "garraio jasangarria sustatzea" da, bizikletaren erabilera bultzatuz eta oinezkoiei leku gehiago eskainiz. Era berean, proiektuaren nondik norakoen berri emateko asmoz, Udalak auzo-bilera antolatu du otsailaren 5ean, eguna, 19:00etan, Kukulluko egoitza sozilean. Udal ordezkariak gainera, eraikuntzaz arduratuko den enpresaren teknikariak ere egongo dira, auzokideen zalantzak argitzeko.

Sopelmarreko auzokideek Udalari bidegorri bat eraikitzea eta etorbide horretan autoen abiadura murriztea eskatu izan diote hainbatetan. 2013. urtean, esaterako, sinadura-bilketa aurkeztu zuten udaletxean eskaera horiek eginez. Udalak eskaera horiek aintzat hartzea erabaki zuen.

Hala ere, bidegorriarena ez da Kukulluko auzokideek egin duten eskaera bakarra. Azken asteetan, Sopelmarreko auzokideek, Arriaterako auzokideakaz batera, sinadura-bilketa abiatu dute Bizkaibusa euren auzoetara heltzea eskatzeko. Zehazki, Areeta eta Armintza lotzen duen autobus-lineak euren auzoetan geldialdiak egitea eskatzen diote Bizkaiko Foru Aldundiari. Auzo bietako auzokideek azaldu dutenez "Bizkaibusa Arriatera eta Sopelmarrera helduko balitz, nabarmen hobetuko litzateke auzokideon bizi-kalitatea".

info +: www.sopela.eus

Kirol Medikuntzako autobusa igerilekuan

Foru Aldundiko Kirol Medikuntzako unitate mugikorra Abadesoloko igerilekuan alboan egongo da otsailaren 9tik 13ra arte. Izena eman duten lagunek (daborduko ez dago lekurik) aukera izango dute medikuen aholkuak jaso eta azterketa fisikoa egiteko: hezurak, artikulazioa, e.a. ◀

info +: www.sopela.eus

Fracking Ez taldea sortu da Sopelan

Urtarrilaren 24an elkartu zen lehenbizikoz Sopelako fracking-aren kontrako taldea. 14 lagun gerturatu ziren batzarrera, eta hurrengo asteetan taldea egituratzeko asmoa iragarri dute. Hurrengo bilera otsailaren 15ean egingo dute, 18:00etan Kurtzio kultur etxean. Nabarmendu dutenez, bilerak irekiak dira, eta, horrenbestez, auzokide denak ondo etorriak izango dira. Euren helburua haustura hidraulikoa-aren inguruko informazioa zabaltzea eta horren kontra mobilizatzea izango da. Iazko abenduan egin zen fracking-aren kontrako lehenengo mobilizazioa Sopelan, eta 300 lagun baino gehiago elkartu ziren. ◀

sopelafrackingez@gmail.com

Guillermo Vio, EH Bilduko alkategai



EH Bildu koalizio abertzaleak maiatzaren 24ko udal hauteskundeetarako hautagaiak aurkeztu zituen urtarrilaren 25ean egindako ekitaldian. Guillermo Vio 55 urteko sopeloztarra izango da zerrendaburu. Vio Psikologian lizentziaduna da, gaur egun irakaskuntzan egiten du lan eta zortzi urtez zinegotzi izan da Sopelako Udalean. Bere helburua "azken lau urteetan EH Bilduko udal gobernuak egindako lan bikainari jarraipena ematea" izango da. Beragaz batera, honakoek osatuko dute zerrendaren lehenengo postuak: Iratxe Moreno, Ione Aurrekoetxea, Juan Sanchez, Ander Moreno, Mikel Tapia eta Unai del Burgo. Ekitaldian EH Bilduk hauteskundeei begira sortu duen "konpromisoen karta" ere aurkeztu zuten. ◀

DIDAK
hamilton
IDIOMAS
Ingelesa, Frantsesa eta Alemana
- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
Inglaterra egonaldiak
Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA
TE 94 676 30 12
info@didakhilton.com

zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia - fisioterapia
Ane Nafarrate Martin
Doctor Landa 4, Sopela
Telf.: 946026779

Hartzaindegitik batxilergora arteko eskaintza
Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.net
www.anderdeunaikastola.net
ander deuna
i k a s t o l a

Barrika

San Blas hariak urte osoan katarrorik ez hartzeko

Otsailaren 3an, martitzena, Blas Deuna eguna ospatuko dute barrikotzarrek, Andra Mari elizan eta Elorduy Egoitzan. Ohi lege, bedekatutako kordelak erosi ahal izango dira.



Ohikoa da Blas Deuna egunean koloretako kordoiak erostea katarrorik ez hartzeko

Urtero lege, otsailaren 3an Blas Deuna eguna ospatuko dute barrikotzarrek, eta egitarau polita prestatu dute: goizean meza nagusia izango da Andra Mari Elizan (Elexalde), 11:00etan. Horren ostean, hamaiketakoaren txanda izango da, trikiti-doinuak lagun. Arrastian, berri, trikiti, karamelu eta pastelen txanda helduko da, Elorduy Egoitzan, 17:30etik aurrera. Zelan ez, egunean zehar, San Blas hariak eta erroskillak erosteko aukera egongo da elizarako bidean egongo diren postutxoetan.

Otsailaren 3an ohikoa da elizetara hurbiltzea bedekatutako opilak eta koloretako San Blas hariak erostera. Ohituren arabera, kordioek neguko hotzetatik ezarria babesten dute. Horretarako, bedekatutako lokarria lepoan zintzilikatu behar da zortzi egunez, eta bederatzigarrenean erre. Diotenez, urte osoan katarrorik ez hartzeko modurik onena da.

Ohituraren jatorria

Kondairaren arabera, Blas Sebasteko apezpikua sendatze miragarriak gauzatzeagatik egin zen ezagun; pertsonak zein animaliak osatzen zituen. Berbarako, behin, ezarrian arrain-hezur bat trabatuta itotzen zebilen ume bat sendatu zuen, eskuak bere lepoan jarri eta gero; horren ondorioz, hasi ei zen otsailaren 3an ezarriak bedekina-

tzeko eta babesteko aipatutako ohitura. Bestalde, gaixo zeuden animaliak ere hurbiltzen zitzaizkion senda zitzan, baina otoitz egiten zuen bitartean ez zioten trabarik egiten.

Martiri santua

Agricolak, Kapadoziako gobernadoreak, agindutako kristauen kontrako jazarpena Sebastera heldu zen.

Ehiztariak harea-jokoetarako animalien bila joan ziren Argeuseko basora, eta bertan animalia ugari Blasen kobazuloaren kanpoan zeudela ikusi zuten. Lekuraino bertaratu eta Blas errezatzen zegoela ikusi zuten. Ondorioz, atxilotu egin zuten.

Agricola ahalegindu zen Blas fedez aldarazten, baina alferrik. Hala, preso degira bidali zuen. Bertan, hainbat lagun sendatu zituen, eta Agrícola gobernadoreak hura hiltzea eta laku batera jaurtitzea agindu zuen. Bota tzean, Blas ur gainean zutitu eta jazarleak ur gainean ibiltzera gonbidatu zituen, euren jainkoen boterea erakutsi zezaten; guztiak ito ziren. Ostean, aingeru batek lurreratzeko agindu zion apezpikuari, eta bertan, harrapatu eta torturatu zuten. Azkenean, burua ebaki zioten.

Azaldutako guztiaren ondorioz, ei da ohikoa edo ohitura martiri santu horri ezarria babes dezala eskatzea urtero, otsailaren 3an. ◀

Plentzia

Emakume begiradak erakusketaren III. edizioa

Martxoaren 8ra begira dago da-borduko Plentziako Udala; izan ere, emakumea oinarri duen erakusketa antolatu gura du. Ekimenaren helburua da ikus-arteetan (margoak, marrazkiak, grabatuak, argazkiak, e.a.) adituak diren artisten lanak za-

baltzea eta emakumea gaitzat hartuta Goñi Portalen horien talde-erakusketa antolatzea. Hala, parte hartu gura dutenek euren lanak aurkez ditzakete, izena emateko epea otsailaren 19an amaituko da. ◀

info +: www.plentzia.net

Urduliz

ArgiHizkiak erakusketa daborduko ikusgai



ArgiHizkiak 2014. ASIER MENTXAKA

ArgiHizkiak Uribe Kostako literatu-Ara-lehiaketaren III. edizioan parte hartu zuten testu irabazleak eta argazkiak dagoeneko ikusgai daude otsailaren 1era arte, Urdulizko kultur etxean (Aita Gotzon kalea, 16). Bisitak astegunetan goizez 10:00etatik 13:30era eta arrastiz 16:00etatik 20:00etara egin daitezke. Zapatueta ere zabalik dago

aretoa, 09:30etik 14:00etara. Obrak hainbat argazkitan oinarritutako testu laburrak dira; izan ere, lehiaketagaz, jendea euskaraz idaztera eta irakurtzera animatu gura dute antolatzaileek; argazkilari uribekostarren lana ezagutarazteaz gainera. Gero, Urdulizko erakustaldia amaituta, ArgiHizkiak erakusketa Leioan ikusi ahalko da. ◀



GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gubxi denik ez prentsa"

Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1

Tf. 94 430 22 13

GETXO

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

lacofris

MARKA GUZTIAK

24 ORDUTAN ERANTZUNA

3 HILABETeko GARANTIA

IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 - KASUNE 18 - ALGORTIA

www.lacofris.es - sat@lacofris.es

Gorliz



Sara Soto Gabiolak Euskal Herriko artista ugarigaz lan egin zuen

Sara Soto kantautoreak badu bere webgunea

Eresbil Musikaren Euskal Artxiboak Sara Soto Gabiola konpositore eta kantautore gorliztarraren inguruko webgunea sortu du.

Eresbilen agerkariak euskal musikaren historiaren inguruko informazio ugari biltzen du; gainera, gai zehatzen inguruko atariak ere hartzen ditu, horien artean sei autorerenak: Jesus Guridi (1886-1961), Francisco Escudero (1912-2002), Jose Antonio Arana Martija (1931-2011), Luis Aranburu (1905-1999), Raimundo Sarriegi (1838-1913) eta oraintsu Sara Soto Gabiolaren (1941-1999). Azken horren atarian musikariaren biografia osoa,

diskografia, partiturak eta grabazioak batzen ditu, euskaraz zein gaztelera.

Sara Sotoren bizitza

Soto Gabiola Gorlizen jaio zen 1941ean, baina txikia zela, familia Irunera bizitzera joan zen. Jose Antonio Canoura maisuagaz harmonia ikasi zuen, eta musika konposizioaren alorrean autodidakta izan zen. Musika legatu zabalak utzi du gorliztarrak. Bere lehenengo obrak musika herrikoien baitan

kokatzen dira. Lourdes Iriondoren eta Xabier Letere lagun onak ziren, ondorioz, Ez dok amairu mugimenduaren eragina izan zuen. Hala, Sotok gitarra lagun hainbat abesti konposatu zituen. Txomin Artolak *Martxintxo* obra grabatu zuen 1979an Xoxoa diskografiarentzat. Album horretan, Artolagaz batera Sotok eta haren iloba Sara Isabel Basterretxeak abestu zuten.

Canouraz gain, Fernando Etxeparekorurako musika alorrean sartu zuen Soto, eta Ricardo Requejo pianistak, berriz, konposizioan. Hala, 70. hamarkadaren amaieran, Nestor Basterretxea eskultorearen *Serie Cosmogonica Vasca*-rako musikaren enkargua jaso zuen

Maitasun honek zugar dirudi

Letra eta musika
Sara Soto

Euskarazko bertsioa
Xabier Lete

Maitasun honek zugar dirudi egunsenti bat illunean zelaiek legor txoririk ez, argirik gabe gau ixil eta egunsenti trixtea.

Maite dut zure izena ixilik beti esatea maite dut, gauean zure izena erabiltzea.

Len zulo aundi bat zen tokian uste berri bat sortu da nere anima zai jarririk beti daukazu maitasun ezko zure ohi ortara.

Maite dut zure izena ixilik beti esatea maite dut gauean zure izena erabiltzea.

gorliztarrak. Horren emaitza "Karaxis" poema korala izan zen, Basterretxearen bertsoetan oinarrituta. "Crip-ta" organo-lana konposatzeko, berriz, Basterretxeak Arantzazuko Basilikako kriptarako egindako muraletan oinarritu zen; Jose Manuel Azkue organista ospetsuak askotan interpretatu du lan hori. Obra horiez gain, Soto Gabiolak honako obrak ere utzi ditu: "Inguma", "Cuatro Canciones Vascas", "Elurretako Printzesak", "Gure margo eder horiek", "Txori bat bezala" eta "Nafarroako azken erreginak donapaleun" bakarlarik eta lau ahots nahasietarako.

Sara Soto Irunen hil zen, 1999ko ekainaren 28an. ◀

OIARBIDE DEKORAZIOA

· Pladur: Tabikeak, zapaia, baldak
· Eskaiola: moldurak, kornisak
· Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoliarbide@hotmail.com
Andikoetxe 2, GETXO

Especialistas en desayunos
abrimos desde las 07:00h.
y 08:00h. los fines de semana y festivos
www.cafebarzuazua.com
Iturgibx 13, PLENTZIA
Tf. 94.677.31.28

Café-Bar Zuazua
Plentzia

berezi
Hamburguesas
Bocatas
Sandwiches
Platos combinados
Sanwichak
Plater konbinatuak
SABINO ARANA, 34 48640 - BERANGO
PEDIDOS: 946 681 064 (PARA RECOGER EN LOCAL)

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati
OPARIK MODA GAZTEA

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

UKnatura
Bioeraikuntza
Ingurugiro hezkuntza
ikastaroak eta proiektuak

OSTABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontia
- Periodontia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK
ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK
Tel. 94 430 52 43 / 607 952 977-6
rgaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz
Ileta kalea 1 ALGORTA

Uribe Kosta



Gorliz izan da udalerririk zigortuena

Langabeziak gora egin du eskualdean

Azken hiruhilekoan EAEn 6.000 lanpostu berri sortu dira, Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) arabera. Bizkaian langabezia-tasak behera egin du; oster, kontrako norabidea hartu du Uribe Kostan. Eskualdeko udalerririk zigortuena Gorliz izan da, langabezia-tasa %13,6 igo da-eta. Guztira, 405 gorliztarrek ez dute lanik aurkitzen, iaz baino 52 gehiagok. Plentziak eta Leioak ere antzeko norabidea hartu dute. Lehenengo udalerrian, 21 langabetu gehiago dago, guztira 290; eta Leioan 11 pertsonak galdu du lana.

Barrika, Lemoiz eta Urduliz udalerrietan ere lanbakozen zenbatekoak gora egin du, eta gaur egun, hurrenez hurren 97, 70 eta 262 lagun dabilta lan bila herri horietan.

Bestalde, Berangon, Erandion, Getxon eta Sopelan langabezia-tasak behera egin du. Berangon, 26 lagunek lana aurkitu dute azken urtean, langabezen zenbatekoa 397ra murriztuz. Erandiok eta Getxok 55 eta 37 langabe gutxiago dituzte, hurrenez hurren; eta Sopelak 2014a 889 langabegaz hasi bazuen ere, egun 854 langabe daude. ◀

Indarkeriaren kontra hainbat gomendio

Emakumeen aurkako erasoak salatzeke ekintza publikoetarako jarraibideak jaso ditu liburuxka batean Berdinsareak.

Emakundek eta Euskal Udalen Elkartek (EUEL) bultzatuta, emakumeen aurkako indarkeria kasuetarako ekintza publikoen gaineko liburuxka plazaratu du Berdinsareak. Besteak beste, Leioako Udalak parte hartu du lan horretan, eta udal webgunean jarri dute kontsultagai. Aipa-

tutako salaketa-ekintzak antolatzeke orduan, hainbat gomendio batzen ditu liburuxka. Berdinsareak azaldu duenez, emakumeen aurkako eraso kasuetan edo indarkeriaren ondoriozko erailketa kasuetan, jendaurrean jarduteko jarraibide batzuen beharra antzemanda, Udalek halako agiriren bat eskatu zuten. Lau atal dauzka argitalpen laburrak: politikarien adierazpenetarako gomendioak, komunikabideekiko harremanak, zabalkundea eta deialdiak egitea publiko egiten diren emakumeen aurkako indarkeria edo eraso sexualen kasuetan. ◀

D eredua bultzatzeko kanpaina abiatu dute

Aurreko bost urteotan legez, Berango, Erandio eta Leioako udalek *D bitamina*, *Aberastu bere heziketa!* informazio-egitasmoa hurbilduko diete bi eta hiru urteko umeen ehunka gurasori. Izan ere, ekimenaren helburua da haurrak eskolan lehenengo aldiz matrikulatzen dituzten amei eta aitei D eredua gainera informazioa ematea, eta eredu hori aukeratzeko arrazoiak azpimarratzea. Alkarbide-foru bilguneak koordinatuta, kanpainak lau osagai ditu: udal ordezkariaren batek sinatutako gutuna; D eredua aukeratzeko arrazoiak azaltzen dituen triptikoa; neska-mutikoentzako oparia; eta gurasoei zuzendutako inkesta, kezka eta zalantzak ezagutzeko. ◀

Uribekostarrak ere lurra zaintzeko prest

Planetaren egoera hobetzeko bidean, *Aktibatu+* programa zabalduko da lehenengo aldiz Uribe Kostan. Ikuspegi positibo, ideia arrunt eta ekintza praktikoetan oinarrituta, ikastetxe, lantoki eta etxeetan egin daitezkeen ekimen txikien bidez energia eta ura aurreztu, CO₂ igorpenak murriztu eta ingurumena zaintzea du helburu, pertsonen ohiturak aldatzeagaz batera. Hondakinen gaikako bilketarako edukiontzien erabilera, aldiz, %12 handitu gura dute. Ekintza Globalerako Plana (GAP) sarerak abiatu zuen egitasmoa 1990ean, Unescoren babesagaz. Bizkaian, hainbat erakundek esku hartzen dute. ◀

info +: bizkaia21.net



PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK-BOKATAK-PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA





Lurra esnarazten



Agate Deuna bitarte dela, dozenaka lagun ibiliko dira kantuan otsailaren 4an Uribe Kostan, makilak eskuan. Goiz-eguerdian eskolatik aterako dira gaztetxoena. Arrastian, lehiari jardungo dute hainbat herritan.

Usadio zaharrari eutsiz, otsailaren 4an, eguaztena, kale eta plazetara aterako dira Euskal Herri osoan ehunaka emakume eta gizon, zahar zein gazte. Eta Uribe Kosta ez da salbuespena izango. Asko izango dira baserritarrez jantzita eta egurrezko makila eskuan kantari ibiliko direnak. Ahots finak eta lirainak izango dira batzuk; ez hain gozoak besteak. Baina, guztiak arituko dira lurra esnarazi guran, Agate Deunaren bezperan. Kontuak hala, goiz-eguerdian ikastetxetatik aterako dira gaztetxoena, haiek baino makila luzeagoak eskuan! Arratsaldean, berriz, lehiaketari edo hitzartutako dietari jarraituz abestuko dute hainbat herritan, barbarako Sopela, Getxo eta Leioan.

Getxori dagokionez, aurten Agate Deuna Koru Jaialdiaren 28. urteurrena izango da eta, guztira, 40 talde ibiliko dira tradiziozko kantak kaleetan abesten. Goizez zein arratsaldez jardungo dute, bi gunetan: lehenengoan, Itzurbaltzeta / Romo eta Areta auzoetan; eta bigarrenetan, Algortan eta Getxon. Kultur Etxetik adierazi duenez, udalerri osoan gozatu ahal izango da Santagedako koplakaz.

Lehenengo guneko taldeak Xake plazan batuko dira 20:00etan, guztien artean emanaldia eskaintzeko. Bigarren gunekoek beste horrenbeste egingo dute Telletxe plazan.

Oraindino kanta lehiaketetan izena emateko aukera dago Sopelan eta Leioan

Leioan, 26 urte beteko ditu aurten Santagedako Kanten Lehiaketak. Ohi den legez, 16 urtetik beherakoak goiz zein arratsaldez arituko dira; eta hortik gorakoak arratsalde-gau partean. Besteak beste, bost jarduketa gunetara dituzte: Lamiako, Pinueta, erdigunea, San Bartolome eta Udondo.

Oraindik ere badago badago lehiaketan izena emateko aukera; urtarilaren 31ra arte, Kultur Leioan. Sariak 350, 250 eta 175 eurokoak izango dira. Otsailaren 7an, zapatua, banatuko dituzte, 12:00etan, Kultur Leioan.

Sopelako lehiaketa bigarren aldiz

Sopelako Udalak ere kalez kale kantuan ibiltzera deitu ditu herritarrek ohitura zahar hori galdu ez dadin. Aurten, bigarrenetaz, lehiaketa izango da. Hala, gutxienez 10 lagunek osatuta egon beharko dute taldeek, partaide guztiak sopoloztarrek izan eta baserritarrez jantzita direla, gainera. Horrez gainera, halabeharrez agertu beharko dute ondoko lekuetan: Urgitxieta plaza, 12:00etan; udaletxeko plaza, 18:00etan. Kategoriatik bi egongo dira: 18 urtera artekoena (kategoria honetan helduakaz doazen umeak ere sartuko dira) eta 18 urtetik gorakoena. Lehenengo kategoriako irabazleek 150 euroko saria eskuratuko dute, eta bigarrenenak 250 eurokoa. Izena emateko epea otsailaren 3an amaituko da, Kurtzio kultur etxera joz.

Erandiori dagokionez, Altaga ikastolako ikasleak zein gurasoak eta Kantagunea 18:00etatik aurrera ibiliko dira Altagan barrena. Musika

Eskolako lagunek, Abots Alai Abesbatzek, Trabudu Dantzari Taldeek eta Iparraize Txistulari Taldeek ordu berean daukate hitzordua Astrabuduan.

Berangon, herriko eskolako umeak udaletxera joango dira abestera eta gozokiak jasotzera, 11:00ak aldera. ◀

Getxo

Taldeak Areetako Xake eta Algortako Telletxe plazetan batuko dira 20:00etan guztien arteko emanaldia egiteko

Erandio

Altaga ikastolako haur zein gurasoak Kantagunearekin batera ibiliko dira Altagan 18:00etatik aurrera. Ordu berean aterako dira beste hainbat talde Astrabuduan

Leioa

Goiz zein arratsaldez ibiliko dira taldeak ondoko gunetan: Lamiako, Pinueta, erdigunea, San Bartolome eta Udondo. Urtarilaren 31ra arte dago izena emateko

Berango

Eskolako haurrak udaletxera joango dira abestera eta gozokiak hartzera, 11:00etan

Sopela

Urgitxieta plazan, 12:00etan, edo udaletxeko plazan, 18:00etan, abestu beharko dute taldeek. Otsailaren 3an amaituko da izena emateko epea Kurtzio kultur etxean



LEMOIZ

Dzast Ahotsak kantari

Otsailaren 1ean, domeka, Urizar auzoko elizan emango du kontzertua Dzast Ahotsak abesbatza gasteiztarak. Emanaldia 13:30ean izango da. Talde horrek hizkuntza aurre-indoeuroparretan XX. mendean sortutako musika korala kantatuko du: suomiera, letoniera, kareliera, hungarieraz eta euskaraz.

Lemoizen eskainiko duten kontzertuan, honako musikarien lanak eskainiko ditu: Veljo Tormis, Zoltan Kodaly, Riskasmies Kostainen, Matty Hyokki, F. Remacha eta A. Mitzelena;

perkusioan Imanol Martinezen esku. Dzast Ahotsak abesbatza Gasteizen sortu zen 2006ko irailean ezohiko musika korala plazaratzeko asmotan. 28 abeslarik osatzen dute taldea eta proiektuka lan egiten dute. Bere ibilbidean azpimarra daiteke Donostiako Musikaste edo Gasteizko Bernaola jaialditan parte hartzeko gonbidapenak jaso dituztela.

Besteak beste, Bernaola festibalan, antzinako musikaren atalean, Claudio Monteverdiren madrigalak abestu zituen. Hainbat filmeko soinu-ban-

den grabaketan ere parte hartu du talde gasteiztarrek.

Hala, gaur egungo musikan duen interes bereziagatik, Europako eskaintza koralean nahiko alboratuta datagoen XX. mendeko lanak eskaintzen ahalegintzen da, euskal musikaren autore ahaztuak barne. Javier Sagastumek zuzentzen du taldea bere sorreratik.

Beraz, Lemoizen emango duten kontzertuaren berezitasuna da lan guztiak hizkuntza aurre-indoeuroparretakoak direla, tartean euskara.

BERANGO

Zinema, antzerkia eta zirkua egunotan Berango Antzokian

Otsailaren 1ean, domeka, *Abuelos al poder* filma egongo da adin denentzat, 18:00etan. Sarrera doan. Hilaren 7an, zapatua, *Cualquiera que nos viera...* umorezko antzerkia edukiko dute helbuek, gaztelaniaz, 19:00etatik aurrera. Sarrerak 3 eurotan egongo dira. Azkenik, hilaren 8an, domekan, *Let's circus* ikuskizuna egongo da haurrentzat, 18:00etan, euro batean.



GETXO

Traje itsusiek beteko dute Txorimalo urtarrilaren 31n

Aratusteak heldu artean, giroa berotzen joango dira Txorimalo gaztetxean. Orain urte batzuk Jai Horterata deituriko

SOPELA

Hiru txerritxoen eta otsoaren bertsio gaurkotua

Glu Glu Producciones antzerki taldeak 3 *txerritxoak eta otsoa* ipuin klasikoaren bertsio gaurkotua eskainiko du otsailaren 1ean, domeka, Kurtzio kultur etxean. Emanaldia 18:00etan hasiko da. Sartzeko 3 euro ordaindu beharko dituzte neska-mutilek eta 5 euro laguntzen doazen aita-amek.



2015/01/29

Telefonia antenak: ardura printzipioa hitzaldia

Gofi Portal kultur etxea | Plentzia
Hizlariak: Iñigo Bilbao eta Dani Maeztu
19:00

2015/01/30

Todo dice que sí musika saioa



Flamenkoa eta txalaparta bat eginda

Txaleo ikuskizun berritzaileak dantza flamenkoaz gozatzeko aukera ematen du, baina euskal musikagaz elkartuta. Besteak beste, Ander Sanchez sopeloztarra eta Bittor Pastor izango dira txalapartariak; eta dantzaria Lidia de Lorenzo *bailaora* ermuarra izango da.

Noiz: Urtarrilak 31, 20:00
Non: Kurtzio kultur etxea (Sopela)
Sarreara: 6 € (Kurtzion, udallexean eta Sopelarin bulegoan)

ALBEren urteurreneko ospakizunak lau haizetara

Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE) 35 urte beteko ditu aurten. Ospakizunak berri emateko asmoz, ekitaldia antolatatu dute urtarillaren 29rako, eguena. Hitzordua 20:00etan jarri dute Algortako Usategi kafetegian. Baina, aurkezpen-berbez eta 35.urteurreneko jardueren berri emateaz gainera, beste hainbat kontu egongo dira bertaratutakoan gozamenerako, besteak beste: aho-gozagarria, bertsuak, musika eta kantak agindu ditu ALBEk.

Hala ere, zaturako (hilak 31) zita ere buruan daukate Algortako eta Uribe Kostako bertsuzaleek. Izan ere, egun horretan ospatuko baitu Bertso Eguna Donostian Euskal Herriko Bertsuzale elkarteak. Gainera, aspaldiko partez, Algortatik bertozaleen jaialdi handira joateko auto-

busa edukiko dute aurten tokikoek. Bertso Eguneako eskaintzari dagokionez, 12:00etan emango diote hasiera jardunaldiari Donostiako Alde Zaharrean. Ekitaldi nagusia, baina, Kursaal-ean egingo dute, 18:00etatik aurrera. Gauerako, afaria eta festa antolatatu dituzte 21:00etarako, Manteo kiroldegian.

Algortako Bertsolari Eskola berbagai dugunez, akordura ekarri 1980an sortu zela gaur ALBE izenez ezagutzen duguna, Trino Azkoitia eta Andoni Iriondoren ekimenez. Bertsolaritzaz gozatzeke talde natural gisa sortu zen. Gaur egun, urtean 50 ekitaldi inguru antolatzen ditu Getxon zein eskualdean: Balkoitik balkoirakoa, Abra sariketa, festetako saioak e.a. Ekimen berrien artean, Azebarri elkartearen sortu dute.

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

Kultur Leioa | Leioa
Musikariak: Alberto San Juan (ahotsa) eta Fernando Egozkue (gitarak)
Sarreara: 10 euro
21:00

2015/01/30

El último Elvis bideoforuma

Andres Isasi musika eskola | Getxo
Sarreara: 2,90 euro
21:00

2015/01/31

Campanilla: hadas y piratas filma

Josu Murueta kultur etxea | Erandio
Sarreara: 2 euro
17:00

2015/01/31

Euskal Herriko Mus Txapelketa

Tsunami taberna | Gortiz
Gortizko lehenengo kanporaketa jokatu dute. Bigarrena otsailaren 1ean izango da
17:00

2015/01/31

Cuentos de amor ipuin kontalaria helduentzat

Berango Antzokia | Berango
Zuzeneko musikaz (biola eta biolina)
19:00

2015/01/31

Dos días, una noche filma

Josu Murueta kultur etxea | Erandio

Sarreara: 2 euro

20:00 2015/02/03

San Blas eguna

Andra Mari eliza | Barrika
Meza nagusia, hamaiketakoa, trikitixa...
11:00

2015/02/05

La pequeña Venecia filma

Kurtzio kultur etxea | Sopela
18:00

2015/02/06

Aire, airean, Broad Peak (8.047 m) hitzaldia

Kurtzio kultur etxea | Sopela
19:30



Autobusaren gaineko informazioa: Bizkaiko Bertsuzale Elkarte, 657 794 734

Korrika 19 martxoaren 24an ibiliko da eskualdean barrena



Korrika 13 eskualdean zehar 2013an

Korrika 19 egun bitan igaroko da eskualdetik: martxoaren 24an Mungiatik helduko da Urdulizera, eguerdian, herri gehienak zeharkatzeko; martxoaren 29an Erandion izango dugu bueltan lekukoa, Bilboko helmugaraino bidea egiteko.

Urepelen (Nafarroa Beherea) hasiko da AEK-k antolatzen duen euskararen aldeko lasterketa 2015eko martxoaren 19an, eta Bilbon amaitu hamar egun geroago, martxoaren 29an. Horrela, Urepeletik Bilbora bitarteko ibilbidean 2.000 kilometrotik gora egingo ditu Korrikak. Hain zuzen ere, antolatzaileek webgunean jarri dute daborduko aurtengo ibilbidea. Gurera, martxoaren 24an, martitzena, Mungiatik helduko da Urdulizera 11:40 aldera eta Gorliz, Plentzia, Barrika, Sopela, Berango, Algorta, Itzurbaltzeta /

Romo, Leioa eta Erandio zeharkatuko ditu euskararen aldeko korrikaldiak. 16:00ak aldera joango zaigu Barakaldo aldera, ohi den legez, itsasadarra traineruz igarota Barakaldorantz. Erandion bueltan izango dugu Korrika azken egunean, goizeko 7:00etan, San Inazion sartuta Bilboko helmugarako bidea egiteko.

Behin datak zeintzuk diren jakinda, merezi duen harrera prestatzeko eskualdeko herrietako batzordeak lanean hasiko dira laster. Erandion baten hasi dira dagoeneko; eta gainon-

tzeko herrietan ere hitzorduak ipini dituzte jada. AEKko tokiko arduradunek azaldu dutenez, Korrika batzordeek izaera zabala daukate, edozeinek (elkartek, kirol taldeek, norbana-koek...) parte har dezake. Batzordearen zereginen artean daude herrian egingo diren ekitaldiak pentsatzea eta antolatzea, Korrika Txikia, e.a.

Euskahaldun!

Durangoko Azoka izango da Korrika 19ko omendua, aurtun 50 urte beteko dituela ospatuz. Aurtengo leloari dagokionez, "Euskahaldun!", Amets Arzallusek Korrika 18ren amaieran Baionan esandakoak ekartzen ditu gogora: "Herri hau euskaraz pentsatuko dugu, edo ez da izanen". Bertsolariaren esanetan, "herri hau euskaraz pentsatzen ahal dugu, edo ezin dugu pentsatu". ◀

Ibilbidea:

Martxoak 24, martitzena

Urduliz.....	11:38
Gorliz.....	12:00
Plentzia.....	12:23
Barrika.....	12:43
Sopela.....	13:11
Berango.....	13:50
Algorta.....	14:10
Leioa.....	15:25
Erandio.....	16:04

Martxoak 29, domeka

Erandio.....	07:00
--------------	-------

Korrika batzordeak:

Urduliz

Urtarrilak 29, eguna
19:00etan kultur etxean

Berango

Urtarrilak 29, eguna
18:00etan kultur etxean

Plentzia-Gorliz

Urtarrilak 30, barikua
19:00etan Jentilbaso euskaltegian

Sopela

Otsailak 3, martitzena
19:00etan Kurtzio kultur etxean

Leioa

Otsailak 5, eguna
19:00etan Lamia euskaltegian

Romo-Areeta

Otsailak 5, eguna
19:00etan kultur etxean

Algorta-Getxo

Otsailak 6, barikua
19:00etan Lauaxeta euskaltegian

Info+: www.aek.org/blogak/uribekosta

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



LURREN
Hizketa
GOSARIAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA, Ripa kalea 1 (Urdaleburu atzean)

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak
guri izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!
Algortako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9

ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

“Kolore denak nahi ditugu gure baitan, zentzu guztietan gainera”

Garrobi sortu dute Getxoko artistek tokiko sortzaileen fruitua zabaltzeko. Herri kultura zabaldu gura dute.

Getxoko Artisten Harrobiak otsailaren 25ean izango du bigarren batzarra. Hainbat egitasmo dituzte eskuartean.

Zelan bururatu zitzaizuen Garrobi sortzea?

Getxon horrelako zer edo zeren beharra zegoela igartzen genuen. Han eta hemen, kaña artean komentatzen zen zer bait bazen... Dagoen kultur eskaintza zabalean herrikoen fruitua faltan dagoela eta bertoko sortzaileok herrian erakusteko erraztasunen premian gaudela. Egon bazeuden (eta oraindik ere badaude) kultur elkarte ugari, baina arte mailan denetarik daukanik ez zegoen gaur arte. Kolore denak nahi baititugu gure baitan, eta zentzu guztietan gainera. Bertatik datorkigu izaera asanblearioa.

Hortaz, ez zineten hutsetik sortu.

Argi-izpiak pizturik zeuden jada, Laurita Silesek *hELarte es morirse de frío* proiektua gauzatzearekin batera hartu-emanak eginda zeuden. Interes komunak bazeudela bagenekien horri esker. Kaña arteko komentarioak areagotzen hasi ziren lehen dei horren aurretik; gerora, denon arteko lanak sortu du. Sortzaile izanda ideiak ez dira inoiz falta izan.

Zeintzuk dira helburuak?

Lehenik eta behin, Getxoko errutina artistiko-kulturala sendotzea. Nahiz eta udalerriko eskaintza kulturala za-



Garrobi kolektiboa osatzen duten sortzaileak

bala den, herriko sortzaileen fruitua falta dugu, baita errutina kultural sano eta herrikoia ere. Hori guztia modu ezberdinetan bultzatuko dugu: sortzaile eta lokalen jabeak harremanetan jarri, erakusketa gehiago egon daitezen; al-dizkako asanbladak; agenda kulturala sortu eta herrian zabaldu; Getxon eta Getxogaz zerikusia daukaten proiektuetan lagundu; ekitaldi anitzetan ekitaldi kulturalak gertaraziz...

Herri-kulturaren aldekoak zarete...

Herriak sortu duen eta herriarentzat den kulturaren aldekoak gara.

Sarea ere sortu gura duzue...

Bai, Getxon eta inguruetan. Hauxe modu naturalean gertatzen dabilen mugimendua da, proiektua bera dela eta batzar zein asanbladak direla, interese komunak dauzkagunok elkar

ezagutzen hasi gara. Eta behin aurretik aipatutako erakusketak zabaltzea

“Urratsez urrats goaz; presa barik, baina gelditu gabe gabiltza beharrean”

koordinatuta dagoenean, batzarrak areagotu egingo direnez, sarea are gehiago zabalduko da. Bestalde, Urteroko Festibala dugu buruan. Horren inguruan gutxi daukagu esateko oraindik, aurreratu dezakeguna da handia egin nahi dugula, kolore guztietakoa, ohikoak ez diren gauzekin eta ohikoak ez diren tokietan ere bai. Hala, aurten, lehenengo urtea izan go denez, egun bakarrekoea edo bikoa

izango litzateke, eta ekitaldiak Algor-tan izango dira. Hala ere, indartsu!

Eta horri guzti horri heltzeko...

Aurrena, bigarren asanblada izango dugu, otsailaren 25ean, GetxoCo Al-gortako lokalean. Ostean, errutina bat jorratzen ahaleginduko gara. Diru-laguntzak eskatu behar ditugu otsail hasieran. Hori da gaur gure eginbehar nagusia. Urratsez urrats goaz, presa barik, baina gelditu gabe.

Eta jendarteari herri-kulturaren behar hori barneratzeko?

Errutina sano baten bidez berez gertatuko da. Eskaintza kalera ateraz eta lan erakargarriak aurkeztuz gero jendartearen interesa piztuko dugu-lakoan gaude. Herri kultura honen beharra dutela, horren falta igarri arte ez dute nabaritu. ◀

Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuretzat?

Ikuspuntu asko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena, lagunarena, lagunaren lagunarena.
Zure ideia, produktu, zaletasun eta gustuentzat erreferentzia puntua.
Nor garen eta nondik gatozen jakiteko abiapuntua.
Guk bezala hitz egiten dutenekin kontaktu puntua.
Interneten bereizten gaituen puntua.
Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua.
Gure komunitatearentzat, kulturarentzat eta zuretzat puntu eta jarraia izango dena.
Anima zaitetz eta sortu zure .eus domeinu-izena. Informazio gehiago www.domeinuak.eus webgunean

Hemen duzu zure puntu berria

eus

gure domeinua

“Haurrak euskaldun hazteko gurasoen jarrerak funtsezkoak dira”

Paula Kasares soziolinguista nafarrak aita-amei begirako berbaldi bi eskaini ditu Getxon; Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako aurre-matrikulazio epea zabaldu dela eta, tokiko Euskara Zerbitzuak gonbidatuta. Gure hizkuntzak eskola-heziketan daukan garrantziaren gainean jardun du NUPeko irakasleak, tokiko Euskara Zerbitzuak gonbidatuta.



KEPA UGARTE MARTIARENA

Gizarte eleaniztunean bizi garenez, gure seme-alabek hizkuntza bat baino gehiago entzun, ikasi eta erabiliko dituzte txikitatik.

Hala da, gure haurrak eleaniztunak izango dira. Oro har, etorkizuneko euskaldun gazteek eta orain bost hamarraldikoek ez dute zerikusirik. Gure hurrek euskaraz eta gaztelaniaz gain segur aski ingelesa eta beste hizkuntza gehiago ere jakingo dituzte. Oraingo neska-mutikoei hizkuntza-behar handiko garaia bizitzea egokitu zaie.

Zelan eskaini euskara aberatsa?

Lehen aipatu egoera horretan gure seme-alabek —beste hizkuntza gehiago jakiteaz gain— euskara jakitea eta jakin ez ezik euskaraz aritzea eta handitan euskarari eustea ere nahi badugu, hurrek euskara-rekin duten harremana zaindu behar dugu.

Horretaz jarduten duzu zure saioetan?

Nire saioetan hizkuntzaren kalitateaz baino gehiago, hizkuntza-jokaereaz aritzen naiz. Euskara aberastzat hartzen dut egunerokoan komunikatzeko baliagarria eta eraginkorra den hori. Hitzaldiaren izenburuak dioten bezala, familiak du giltza —hein batean— haurra hiztun bilakatzeko prozesuan, neska-mutikoak txikiak direnean batik bat. Haurrak euskaldun hazteko eta handitzean euskarari eutsiko diotela laguntzeko gurasoen jarrerak eta hizkuntza-balioak funtsezkoak dira. Hori da saioaren ideia eta ulertu behar dena da: gure egoera soziolinguistikoa

bestelakoa balitz, kezka hori ez genukeela izango; Logroñoko gurasoek, esaterako, ez dute kezka hori, ez dute beren haurren hizkuntza portaerez arduratu beharrik, euskaldunok aldiz, bai.

Hizkuntzekiko zelako jarrerak sustatu beharko zenituzke eta zer egin horretarako?

Hizkuntzak beharrezkoak ditugu. Hizkuntzekiko interesa, balio eta jarrera onak transmititzea garrantzitsua da; eta hori guraso guztiek, hala euskaraz da-

“Gure hurrek euskaraz eta gaztelaniaz gain segur aski ingelesa eta hizkuntza gehiago ere jakingo dituzte”

kitenek nola ez dakitenek, egin dezakete. Euskarari dagokionez, haur eta gaztetxoek euskara baliagarria zaiela sentitu behar dute. Hiztun gazteek hizkuntza-ren bizipen askotarikoa daukate (ez bakarrik familia-ra mugatua edo eskolari lotua, bizitzaren ahal den arlorik gehienetan erabiltzekoa baizik: aisialdian, lagunartean, eskolaz kanpoko jardueretan, kirolean, musikan, telesaiotan, gogoko irakurgaietan...). Gure haurrak eleaniztunak izanen dira —honezkero

badira— eta handitzean euskaraz egiten badute hala hautatzen dutelako izango da, nahiago izango dutelako, eta umetatik hasi beharra dago hautu horiek nolabait elikatzen eta indartzen.

Eta zer egin beharko genuke horiek elikatzeko?

Seme-alabak euskaldun hazteko bidean familiak oro har eta gurasoek bereziki duten egitekoaren garrantziaz mintzatzen ohi naiz; beren esku dauden hautuak, eragiteko bideak, motibatzeak erak... egin dezaketena ez baita amaitzen haurra eskolatzean, umeen hizkuntza portaeretan eragin ahal dute. Gurasoek beren umeen hizkuntza jardueretan bi bide dute eragiteko: motibatu (hizkuntzekiko eta erabilerarekiko jarrera aktiboa eta proaktiboa izan) eta erabiltzeko aukerak eman, sortu, bilatu... Haurrak euskaldun hazteak eguneroko bizi egoera arruntetan euskaraz aditzeko eta aritzeko aukera izan dutela adierazten du; esan nahi baita, euskaraz aritzeko aukera ohikoa: kuantitatiboki nahikoa, usua dela; eta askotarikoa, hau da, kualitatiboki anitza, egoera eta solaskide aniztunekoa, ez familiara edo eskolara mugatua.

Euskara aberatsa izango du?

Zer da euskara aberatsa? Azken urteotan euskararen "kalitate" kontzeptua bera birdefinitu da. Zer da kalitate oneko euskara? Zuzen-zuzena dena soilik? Ez, hizkuntza zuzentasuna ez ezik, komunikazio eragin-kortasuna eta erabilera jatorra ere hasi dira balioes-



Nahasketak

Euskara eta gaztelania nahasten baditu zuzentzea ona al da?

Haur elebidunek txikitan hizkuntzak nahastea hizkuntzez jabetzeko (eta mintzairak bereizteko) prozesuaren barnean ikusi behar dugu. Beraz, ume txikien kasuan ez da kezkatzeko kontua. Haurrak hizkuntzak bereiziz joango dira, beraz, zuzendu baino, haurrei mintzairak bereizteko prozesu horretan lagun dakieke.

Zelan jokatu familia mistoetan?

Familia mistoek beren seme-alabei elebidun goiztiarrak izateko aukera eman diezaiekete, guraso bakoitzak bere hizkuntzari eutsiz gero. Gurasoek nork bere hizkuntzaz egiten diete haurrei eta, noski, bi gurasoak umeen hazieran berdintsu inplikatzan badira, haurrek bi hizkuntzak ikasiko dituzte.

Zein hizkuntza erabili seme-alabakaz euskara ez dakitenak tartean daudenean?

Guraso bakoitzak hautatuko du zein hizkuntzan egin nahi duen. Batzuetan gurasoek hautatzen duten hizkuntza ingurukoek ez dute ulertzen. Halere, nik uste gure familia gehienak linguistikoki heterogeneoak direnez, gurasoek umeak euskaraz hazi nahi badituzte, ahaideen artean gogo horren berri eman dezaketela, euskaraz ez dakitenek jokaera horiek uler ditzaten.

ten euskara onaren irizpidetzat. Hizkuntza gertakari bizia eta aldakorra da. Hitzun belaunaldi bakoitzak hizkuntza nolabait birsortu egiten du, hizkuntzaz jabetzen da eta beretzen du. Prozesu horretan familiak bere eragina du, eskolak berea, komunitate osoak ere laguntzen du, hedabideek... Haur-gaztetxoek beren behar komunikatibo guztiak euskaraz asetzea eta eroso adieraztea da gakoa. Hori egiten badute, haien euskara ontzat eman behar da.

Horiek euskaldun bilakatzeko?

Haur-gaztetxoak euskaldun bilakatzeko baldintzei begiraturik, egungo neska-mutikoen euskarazko sozializazio baldintzak ahalik eta onenak, askotari-koak, trinkoenak izaten saiatu behar dugu; euskararekin harreman sakona eta atsegina, gozamenekoa eta asebetegarria eduki dezaten ahaleginak egin behar ditugu, eta horretarako telebistak, ikusentzune-ko arloak eta teknologia berriek berebiziko lekua dute.

Nik haurrak euskaldun bilakatzeko prozesuari begiratzen diot, zer erabilera-aukera diren beharrezkoak eta haurrek euskararekiko zer motibazio behar duten. Azken urteetan gure herrietara kanpoko herritar eta familia asko etorri dira eta horrek eskolari ez ezik komunitate osoari ere erronka bat ekarri dio: nola lagundu herritar horiei bertakotzen, nola erraztu bide hori. Euskara herrian hobeki bizitzeko baliabidetzat ikusten badute, hizkuntzaz jabetzeko eta umeak ere

euskaldun hazteko gogoak piztuko zaie. Hori da herri euskaldunek duten erronka.

Eta gaztelania?

Gaztelania hizkuntza ahaltsua da. Horrek esan nahi du gizarte-bizitzak, hedabideek... hizkuntzaz jabetzeko eta mintzaira erabiltzeko aukera ugari ematen dutela. Gure haurrek gaztelania jakingo dute ongi, zalantzarik gabe, hizkuntzak gizartearen duen indarrak berak bermatzen du hori. Bizi garen inguruak

“Haurrek euskara baliagarri zaiela sentitu behar dute. Gero euskaraz egiten badute hala hautatzen dutelako izango da”

ziurtatzen du denok gaztelania jakitea eta gure haurren eleaniztasunaren ikuspegitik gauza ona da. Eleaniztasunaz mintzatzen garelarik, beti, hizkuntzak gehitu eta metatzeaz ari gara.

Noiz hasi hirugarren hizkuntzagaz?

Nik uste galdera nagusia ez dela hirugarren hizkuntzarekin noiz hasi. “Noiz” hori hizkuntzaz jabetzeko prozesuaren alderdi bat gehiago da, baina ez gako

bakarra. Goiz hasteak ez du ezer bermatzen baldin eta beste alderdi batzuk (nola [hau da, zer metodologia erabiltzen den]; nork [zer hizkuntza gaitasun duten irakasleek]; zenbat [zer intentsitatez egiten den]..) ez badira egokiak.

Gurean ikasleei hirugarren hizkuntza oso goiz sartzearen aldeko erabakiak hartu dira eta oraindik ez dakigu horrek luzera zer emaitza ekarriko duen. Hezkuntza-sistema batzuek haurren eskolako curriculumean hirugarren hizkuntza sartzeko ez dute presa handirik izaten eta lehenik lehendabiziko biak bermatu eta sendotu nahiago dute. Hirugarren hizkuntza sartzan dutelarik aldiz, metodologia egokiak erabili eta intentsitate handiz egiten dute eta oinarritzko hezkuntza bukatzean ikasleen emaitzak oso onak izaten dira.

Euskaldun berriak euskaraz egin beharko luke?
Nahi badu bai, noski.

Eta euskaraz jardutean okerrak egiten baditu? Zuzendu beharko litzaioke?

Haurrei ongi, zuzen eta garbi hitz egitea garrantzitsua da haien ikaste prozesurako. Halere, horrek ez du esan nahi hizkuntza zuzentasuna dela irizpide nagusia. Guraso euskaldun berri batek dakien euskara bere umeekin erabili nahi badu, nik uste guraso horri ez zaiola komunikazio-gogoak kendu behar, akatsak gorabehera. ◀



Aurtengo haur taldeko jokalariai. © PLENTZIAKO KIROL ELKARTEA

Datorren urriaren 12an 90 urte beteko dira 200 lagunek Plentzia kirol elkartearen sortzeko batzarra burutu zutenetik. 1925eko azaroaren 22an, aldiz, azpiegiturak inauguratu eta lehenengo futbol partida jokatu zuten, Gorlizi 6-1 irabazita.

Halere, Plentzia kirol elkartearen kideek ez dute urteurrena ospatzeko urte amaierara arte itxaroteko asmorik. Taldeko presidente Gorka Zuazok azaldu duenez, pasa den urtean abiatu zituzten urtemuga oroitzeko ekimenak. Haste-ko, elkartearen jokalariai, delegatuak, entrenatzaileak eta zuzendaritzako kideen erretratuak batzen dituen kromo-bilduma atera dute, ehunka album oparitu eta 7.000 kromo-azal salgai jarri dituzte. Elkartean bertan, portuko La Kala tabernan eta Astilleroko zein Piruli plazatzoko kioskoetan eskura daitezke.

Zuazoren arabera, nahiz eta hasieran espero ez, "erabateko arrakasta" izan du kromo-bildumak, jokalariek "gurditik tiratu dutelako". Galdakaotik ere etorri dira bilduma-zaleak hainbat

kromo-bilduma erostera! Ekimenari esker, gaur egungo 14 taldeez "betiko geldituko den oroitzapena" izango da Plentziako historian. Horietatik 12 gizonetakoak dira eta bi bakarrik emakumeetakoak. Talde gehienak, hamar, eskola-kirol mailatan dabilta.

Argazki zaharrak batzen

Oraina ez ezik, antzina ere gorde gura du talde zuri-urdirak. Horretarako, plentziarrei eta inguruko lagunei etxean izan ditzaketen argazkiak uzteko eskatu diete, klubak guztiak eskaneatu eta gerora artxiboan gordetzeaz gainera, Goñi Portalen edo Errotabarrin erakusketa prestatu ahal izateko. Elkartearen egoitzaetik pasatzea edo sdplentzia@gmail.com posta elektronikora mezua botatzea besterik ez da egin behar. Modu horretan es-

pero dute taldeko garai guztietako lekukotasunak eskuratzea, berbarako: 1926an, Bizkaiko futbol federatuaren lehiaketa abiatu eta Plentziak Portugalen Lutanaren aurka berdindu

***Taldeko argazkiak
sdplentzia@gmail.com
helbidera bidal daitezke***

zuenekoa; edo hurrengo urtekoa, kirol elkartearen C seriea igo eta Gernikari irabazi zionekoa, e.a. 1927koa da, baina, memorian iltzatuta duten partida, Solokoetxeren aurkakoa, abenduaren 5ekoa, Plentziak 21 eta 0 irabazi zuena. Hurrengo urtean, B mailara igo zen hiribilduko taldea. 1928-1929 denboraldian ere "Bilboko taldeko" txapeldun

gelditu ziren, besteak beste Arenas atzean utzita. "Urrezko garaia zen", gogoratzen du Zuazok, Barcelonatik eta Athleticetik heldutako jokalariei esker. Gerora etorriko zen gerra, Liga etetea, eta bueltan, beheranzko joera.

Ostera, Plentzia ez ezik Danontzat taldearen argazki bila ere badabilta. 1977an sortutako taldea, inguruko herrietan futbol talderik ez zegoenez eskualdeko elkartearen sortzeko ahalegina izan zen, baina Urduliz edo Berango agertu ostean, 80. hamarkadan Plentzia izenera bueltatu zen. Eta zelan ahaztu: 1980 eta 1981ean Bizkaiko txapeldun geldituko ziren zuri-urdirak.

Horrenbestez, badute zer ospatu, eta bestelako ekimenak ere izango dira urteurrenean, besteak beste: Aste Santuko txapelketa eta San Antoline-tako marmitakoa. ◀

Kantxa
kirol moda
URIBE KOSTAKO KIROL DENDA



Torre 4
ALGORTAKO AZOKA

TF. 94 491 18 82
info@kantxa.eu
www.kantxa.eu



Joaneko partida San Lorenzon. © LEIOAKO KIROL ELKARTEA.

Euskal Ligako derbia hartuko du Sarriena

Leioako Emakumeak taldeak etxean eta lidergoan hartuko du beheko postuetatik ihes egiten ahalegintzen dabilen Erandioko Betiko Neskak. Futbol derbia zapatuan, hilak 31, jokatuko da Sarriena zelaian.

Ezinbestean, Leioako taldea da faborittoa; beste aste batez Euskal Ligaren lehenengo posizioan jarraitzeko, mendean hartu beharko du gaur egun hamargarren postuan dagoen Erandioko taldea. Izan ere, 15 partidaren ostean, Leioako Emakumeak-ek 36 puntu ditu eta norgehiagoka bakarra galdu du. Bitartean, erandioztarrek ezer baino gehiago partidak galdu dituzte, eta 17 puntu dituzte.

Gainera, leioaztarrak sasoi ona erakutsi zuten pasa den astean Bilbon, Berriotxoa taldearen aurkako derbian. Sarrienako emakumeek 90 minutuetan pilota kontrolatu zuten, baina jaurtiketan eraginkortasuna falta izan zitzairen. Hala ere, 0 eta 1 nagusitu ziren, bigarren zatia abiatu eta gutxira kontraerasoan Antruejok buruz sartutako golari esker. Hortik aurrera, urdin-gorrien defentsak eta Arrate atezainak bilbotarren eraso guztiak gelditu zituzten, hiru puntuak ziurtatuz.

Bere aldetik, Erandioko Betiko Neskak Hernaniko taldeari nagusitu zitzaion, leioaztarrak legez gol bakarra sartuta. San Lorenzokoak ere partida osoan jokoa banatu arren, bigarren zatia baliatu zuten Hernaniko jokari berdeak ezustean harrapatzeko.

Euskal Liga

Zapatua, hilak 31, 15:45

Leioako Emakumeak - Erandioko Betiko Neskak, Sarriena I (Leioa)

Zapatua, hilak 31, 15:30

Peña Athletic Santurtzi - Bizkerre, Benjamin Martínez (Santurtzi)

Naiara izan zen golaren arduraduna 66. minutuan. Horren ostean, urdinek atzera jo zuten eta arazo barik itxaron zuten arbitroak finala seinatu arte.

Hala bada, aste akabuan uribekosarren derbia hartuko du Sarriena, zapatuan, arrastiko 15:45etik aurrera.

Orientatzeko proba otsailaren 7an Sopelan

Datorren otsailaren 7an, zapatua, Sopelako I. Orientazio Proba herrikoia antolatuko du Bidea Orientazio Klubak (COBI), bertako Udalaren laguntzaz. Halere, izena emateko epe-muga otsailaren 5a da. Ekimenaren helburua da basoan, mendian edo hirian norberak bere burua orientatzen ikastea. Ekimenak zati bi izango ditu: goizez Kurtzio kultur etxean hastapen ikastaroa eskainiko dute, 11:00etatik 14:00ak arte. Ikastaroan informazio teorikoa eta praktikoa eskaini, maile-

guan iparrorratza utzi, eta dokumentazioa emango da formatu digitalean. Partehartzaileek orientazioaren sekretuak ezagutzeko aukera izango dute, baita natura beste ikuspuntu batek ezagutzeko ere.

Arrastian, berriz, proba herrikoia-
ren txanda izango da. 18:00etan hasiko da udaletxe plazan, eta hainbat gunetan garatuko da: parkeetan, erdiguneko kaleetan, e.a. Gauez egingo dute, orientazioa zailtzeko. ◀

info+: cobidea.com

Hordago zaleak prest! Jokoa Gorliz eta Leioan

Pasa den aste akabuan heldu zen Uribe Kostara Euskal Herriko 7. Mus Txapelketa. Asteburu honetan Gorliz eta Leioan dira kanporaketak.

Hordago zaleen nazio-kirolak hitzordu bikoitza dauka eskualdean aste akabu honetan. Alde batetik, Gorlizko kanporaketa bikoitza jokatuko dute Tsunami tabernan, zapatuan zein domekan, biak ala biak 17:00etan. Beste alde batetik, Leioako Kurkudi herriko tabernak udalerriko kanporaketa hartuko du, zapatuan arrastiko 17:30ean.

Partida guztietan, jokatu gura duten bikoteek hogeina euro ordaindu beharko dituzte. Bi herrietan sailkatuko direnak Bizkaiko herrialde mailako finala jokatu ahal izango dute Barakaldoko Itsasadar sagardotegian,

datorren otsailaren 21ean, goizeko 10:00etan. Nazio-finala ere Bizkaian izango da, Euskal Herriko Mus Federazioak Lekeitio aukeratu du-eta horretarako; data ere jarri dute: martxoaren 7a. Ordua eta lekua, berriz, oraindino ez dituzte jakinarazi.

Lehenengo bikote sailkatua

Itzubaltzeta / Romoko kanporaketa erabateko emaitza sendoz irabazi zuen Azkoiti eta Flores bikote beterranoak, Diego eta Daniri 5 eta 1 gaintik pasatuta. Bederatzi bikoteren arteko lehian ahultasunik ez zuten erakutsi itzubaltzetarrek, jokoa patxadaz hartu zutela. Aipagarria da partidak Caruso tabernan jokatu zirela, antolakuntzak aukeratutako hasierako ostatuan arazo teknikoak izan zirelako. Berangon ere, ezinezkoa izan zen lehiaketa burutzea, bikote bi besterik ez zirelako batu. Biek Romora jo zuten. ◀

info+: ehmus.eus



Romo/Itzubaltzetako kanporaketako finala.



Iaz I. Street Boulder Topaketa egin zuen Zintzilik taldeak.

Amaierara arte, Zintzilik

Zintzilik Gorlizko eskalada taldeak bere ibilbidea amaituko du laster, heldulekurik topatu ez duelako.

Gorlizen eskalatzen dugu!" leloa zuen Zintzilik taldeak katu-oinak, sokak eta bes-telako eskalada materiala alboratu, eta plazara atera da bere azkenak eman duela esatera. Joel Sepulveda talde horretako kidea garrantz mintzatu da: "orain aste bi erabaki dugu taldea disolbatzea eta sinadura bat baino ez zaigu falta", kolektiboa desagiteko.

Bestelako giroa zen orain dela "sei edo zazpi urte", Sepulvedak gogora ekarri duenez. Orduan, herrian kirol aldetik zer behar zegoen ezagutzeko hainbat lagunek inkestak egiteari ekin zioten. "Beti bezala, futbola irten zen lehenengo kirol gisa, diferentzia handiz". Horren ostean, baina, bigarren eskalada azaldu zen bizilagunen interesen artean. Zenbait lagun horretan jarduteko "prest" eta "musutruk" agertu ziren, eta Zintzilik kolektiboa osatzeari ekin zioten. Orduetik aurrera, "auzolanean" murgildu dira, Gorlizen gutxiengoarena den kirol hori era publikoan praktikatzeko ahalbidetzeko.

Filosofia eta espiritu horregaz, eskalada murrua edo boulderra diseinatu eta gauzatu zuten, eta 2013ko azaroan inaugurazio festa ospatu zuten.

Aurretik, lan "eskerga" egin zutela du gogoan kirolariak. Diseinatze eta eraikitze-lan guztiak Udalari eskaini zizkioten eta tokiko erakundeak diru partida bat eman zien, "oso-oso txikia, ez zuena ezertarako ematen", Sepulvedaren ustez. Hala ere, udal kontuak direla-eta proiektua ere atzeratu egin behar izan zuten, Independenteen garaian proiektua "geldi-geldirik" laga zutela. Ostera, "talde politiko batek ere ez" duela euren lana babestu argi utzi du.

Horrenbestez, 2013ko urrian Street Boulder Topaketa ikusgarria egiteaz gainera, urte osoa eman zuten boulderra gauzatzeko lanetan, azaroaren 30a heldu eta estreinatu zuten arte. Ordukoa ere ez du ahazten Sepulvedak: "ikastaro guztiak Zintzilik ordaindu zituen. Udalak laguntza txiki bat agin-

Boulderra eta padel pistak kudeatzeagatik 130.000 euro jasoko du enpresa batek

du zuen lunch-erako; baina inaugurazioa baino egun batzuk lehenago deitu ziguten esanez ezetz, ez zegoela horretarako dirurik".

Hala ere, ez da hori bere kezka nagusia. Udalarekiko gorabehera gehienak kudeaketa ereduaren inguruan izan dituzte: "herriko kirol nagusiak Udalaren ekimenetik aparte daude,

futbolaz kluba arduratzen da, mendiaz mendi taldea eta publikoak padela eta eskalada baino ezin dira izan". Horretarako, eskalada "instalazio publikoetan" eta "kudeaketa publikoetan" gura zuten, "doan, bazkidetza kopuru txiki bat ordainduta", eta beti ere Zintzilik "laguntzeko prest zegoela". Orduetik aurrera tira-birak areagotu ziren eta Udalak une batean boulderra itxi zuen, eta Zintzilik agindutako hainbat ikastaro ezin izan ditu eskaini.

130.000 euroko esleipena

Udalak beste ikuspegi bat zuen eta ohiko esleipenen bideetatik jo zuen, udal kirol zerbitzuaz arduratuko den enpresa bat kontratatuzko. "Zintzilik prest agertu zen esleipen oinarrietan aholkua emateko, baina hori ere ez zuten nahi izan".

Gaur egun, "kezkatura" dago eskalatzailea, Bilboko enpresa batek 130.000 bat euroren truke boulderra eta padel pistak kudeatuko dituelako. Diru-partida "ikaragarria" iruditzen zaio Sepulvedari: "bost boulder eta munduko lau txapelketa egin daitezke dirutza horregaz!". Horrez gainera, enpresak "eskalada kontuetan eskarmentua duen" zalantzan jartzen du Sepulvedak. Dioenez, aipatutako sozietate horrek beste enpresa bat azpikontratatu du boulderraren mantenu lanetarako.

Horrenbestez, jaiotze-helburuak bete ezin dituztelakoan, hormatik jais-tea erabaki dute Zintzilik kideek. ◀



Lumak astin du

KOLDO TELLITU
Ikastolen Elkarteko lehendakaria

Entrenatzaile euskalduna behar dugu

Gaur egun, ez da arraroa halako iragarkiak ikustea, entrenatzeko lana euskaraz egin dezaketen entrenatzaileak aurkitzea zaila izaten baita. Hala ere, arlo honetan behar hainako aurrerapenak ematen ez direla dirudien arren, honelako iragarkiak mentalitate aldaketa baten erakusgarri dira, kirolean ere euskaraz aritu beharra barneratzen ari garenaren seinale, euskara normalizatuko bada, arlo guztietara zabaltzea beharrezko dugula ohartuta.

Orain dela gutxi arte, ohikoa zen euskararen erabilera eta kirol baten entrenatzeko gaitasuna aurrez-aurre ipintzea. Baziren batzuk entrenatzailea euskalduna izatea exijitzeak beronen kalitatea murrizten zuela uste zutenak edota entrenatzailea "ona" izateari eman behar zitzaiola lehenetsia eta ez euskalduna izateari, bi ezaugarriak bateragarriak ez balira bezala.

Ikastetxe batek Hizkuntza Normalkuntza Plana garatzen duenean, pertsona horiei ondorengo kontuak azaltzea oso zaila da: kirolaren eta eskolaren arteko koordinazioak estua izan behar duela, eta ikasleek kirol ekintzak ere euskaraz garatu behar dituztela.


Ikastetxeak motorra izan behar du prestatzen dituen ikasleek euskarazko espazioak izan ditzaten, ikasle euskaradunak baino, euskaldunak sortzeko eta ondorioz kirol praktika, ezin da ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntza Planetik kanpo egon, eskola orduetatik kanporakoa izan arren.

Euskara ikasleek gustuko dituzten jarduerekin lotzeko urratsak eman behar dira. Bai, entrenatzaile euskaldun gehiago behar ditugu, euskara kirolaren inguruan ideia, bizipen eta nahiak elkartrukatzeko bidea izan dadin eta eremu honetan ere normalizatu dadin.



Hitz gurutzatuak

Ezker eskuin: 1. Bularraren goialdean, gorputzaren alde banatan dauden bi hezurretako bakoitza. 10. Idazkunak, testuak. 11. Arrain mota, jateko ona. 12. Arrainen galgarri. 14. Larru. 15. Puntu bi altuera berean dauden ikusteko edo altuera berean jartzeko erabiltzen den zurezko edo metalezko tresna. 17. Ezdeusean galdua da hartan joana dena. 18. Edale, mozkor. 20. Sutondoan, kebidetik zintzilik dagoen kakodun katea. 22. Titanoaren ikur kimikoa. 24. Pluralean, soingaineko mota. 25. Asiako ipar-ekialdeko ibai luzea. 27. Nork berea bilatzen omen du. 28. Egile. 30. Pluralean, boraginazeoen familiako landare belarkara. 32. Gogorarazi.

Goitik behera: 1. Pluralean, txoriak harrapatzeko gai likatsua, biskak. 2. Edonola, bizkaitarrok diogun moduan. 3. Pilota joko batzuetan erabiltzen den erreminta. 4. Azal baten neurria. 5. Hunki. 6. Noka, diot. 7. Herri hizkeran, eta. 8. Bukaera, amai. 9. Motel, indar gutxiko. 13. Beharbada, apika, agian, akaso. 16. Nafarroako udalerrri bateko. 19. Hark dakar, eta nik... 21. Bukatu da, kito. 23. Itxirik dagoena zabaldu. 24. Atsegin hartzeko, eta askotan dirua bitarte dela, egiten den jarduera, eskuarki arautu bera. 26. Leikaimea, serora. 29. Oinarritzko eta ezinbesteko isurkaria. 31. Interjekzioa.





Soluzioak



Eragiketak

1 eta 9 bitarteko zenbaki denak bakarrik behin erabiliz, hutsik dauden laukiak bete beharko dituzu ariketa aritmetiko hauek egoki egiteko. Ariketa guztiotan zenbaki bana eman dugu lagungarri.



Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Artega izan zara hilabete osoan. Ganorazko horoskoporik topatu ez eta zure buruagaz zer egin du-da-mudan. Kito. Hemen duzu zuretzako orakulua.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Nagikeriak uxatzeko behin eta berriro zioen amamak. Gogoan duzu, baina kasurik ez. Etxeko matxura konpontzeaz duzu. Ekin!




Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Beti ezin zara lanean jo eta su aritu! On do pasatu behar da lantzean behin, batez ere aspaldi ikusten ez dituzun lagunakaz; hartu telefonoa eta...



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Erabaki potoloak hartzeko garaia da, baina Eskorbutoaren kantan legez, «kontuz, kontuz». Zuk beti-koa izateko eskubidea duzu. Haiek alda daitezela.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Behingoagatik ardura berriak hartzeko proposame-na luzatu dizute. Benetan gura duzu lan gehiago egin eta kezak etxera eroan?



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Ez arduratu. Txarra ematen duen arren, pasatu pasatuko da. Ahalegindu eusten eta zulora ez jaus-ten. Lagunakaz ateratzea terapia ona izan daiteke.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Agate Deunaren bezperan lurra esnatzeko makila gogoz kolpatuko duzu. Bitartean, zure burua esna-tzeko zeri itxaroten diozu? Urtea aspaldi hasi zen!



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Merke-merke zela-eta, saltokietako apalak hutsik laga zenituen. Orain, non sartuko dituzu etxean metatutako traste guztiak? Ez erosi armairurik...



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Zuhaitza inausi zutenetik txori gutxiago dira ingu-ruan. Natura bere horretan ikusi nahi baduzu hur-bildu mendira. Kirola ondo etorriko zaizu.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Maite duzun hori defendatu behar duzu. Hor ez dute balio ondo gelditzeko keinuek edota asmo onez betetako hamaika aldarrikapenak.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

«Hurrengoan ordainduko dizut» esan zizun azken horretan ulertu zenuen. Inoiz ez duzu zorra kobra-tuko eta agian «laguna» ere galduko duzu.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Gaixo ibili zara, baina gainditu duzu. Halere, ez egin ezer gertatu ez balitz legez. Etxekoak kezkatuta di-tuzu eta horrela jokatuz gero, gehiago.



BETIKO
IKASTOLA

Deitu eta informa zaitez:
Tel. 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra



Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA



Koldo Somokueto (Urduliz)

Orain dela hiru urte hasi zuen *Urdulizen historia II. Errepublika eta Gerra Zibilaren garaian (1931-1939)* ikerketa lana. Urdulizko historiak orokorrean interesa pizten diola azaltzen du historialari gazteak; batez ere, aitortu duenez, II. Errepublikak eta Gerra Zibil garaiak.

Bigarren Errepublikaren eta Gerra Zibilaren arteko garaiak biltzen dituen ikerketa lana bukatzen ari da Koldo Somokueto. Urdulizko 30. hamarkada luze horri errepasoa egiteko, lekukoek testigantzak eta artxiboak bildu ditu. Lana martxoan argitaratuko du.

Urdulizko Udalak eta Eusko Ikaskuntzak II. Errepublika eta Gerra Zibilaren (1931-1939) garaiko Urdulizen historiaren gaineko azterlana bultzatu zuten 2012an. Hala, urte horretako martxoan, Koldo Somokueto historialari urduliztarrak urte haietako errealitate soziala, politikoa eta kulturala aztertzen hasi zen, Ludger Mees EHUko Historia katedradun eta doktorearen zuzendaritzapean. “Beka horrek historia-ikerkuntzaren munduan aritzeko lehenengo aukera eskaini dit, ilusio handiz hartu dut lana, eta asko ikasten ari naiz”, aitortu du urduliztarrak. Daborduko azkeneko pausoak ematen dabil Somokueto, lanari amaiera emateko. Hala, aurreratu duenez, aurtengo martxo amaierarako bukatzea aurreikusten du. Publikazio data, oster, aurrerago izango dela iragarri du, “nahiz eta ez dagoen data zehatzik”. Lanaren helburua, Somokuetoren esanetan, lekutik harago doan ikuspuntu historikoa jasotzea da, “testuiguru zabalagoa hartzeko”.

Urduliz, 30. hamarkada

Urduliz 1.000 biztanleko udalerria zen 30. hamarkadan; gehienek nekazaritzan jarduten zuten, Somo-



Serafin eta Jose Sagarna abadeak II. Errepublikan. SAGARNA FAMILIA

Urduliz:

kuetok azaldu duenez. Baziren itsasgizonak ere, hala nola, Pedro Goirigolzarri, II. Errepublikan lehenengo alkate izan zena; eta gutxi batzuk Bilboko itsasadarreko industrian lan egiten zuten. Urduliz landez inguratuta zegoen, baserriz josia. Garai haietan, eremu horretan zegoen “industria” bakarra irina egiteko errotak ziren; izan ere, industrializazioa ez zen XX. mendearen erdialdera arte ailegatu inguruotara.

Politika arloan, EAJ zen alderdi nagusia, eta

“Gerra garaian ez zen atxilotetarik izan; Franco heldu zenean, ordea, errepresioa handia izan zen”

1933an gehiengo osoa lortu zuen. Ordura arte, errepublikazaleek bi zinegotzi lortu zituzten, eta komunistek bakarra. Somokuetok azaltzen duenez, Elkarre Erradikal Errepublikanoaren historia “El Liberal” egunkaritik jasotako albisteei esker ezagutu da. Bestalde, “Euzkadi” egunkari nazionalistak korrespondentsal finkoa zuen Urdulizen: Jose Brotons “Txiberri”. Hari esker, historialariak adierazi duenez, “informazio ugari lortu dut, ez soilik politika alorrean, baita egunerokotasunekoa ere”.

Somokuetoren arabera, II. Errepublikaren baitan Urdulizek bizitako unerik gatazkatsuena Ardoaren Estatutuak eragin zuen. Izan ere, horren ondorioz euskal udalak eta Gobernu Zentrala liskarrean sartu eta Urdulizko Udala batzorde kudeatzaile batek ordezkatu zuen, Gobernuaren aginduz, 1934ko irailean.



Santa Marina ermita 1954. urtean. INDALECIO OJANGURENEN ARTXIBOA



Pedro Goirigolzarri alkate ohia. PLASENTIA BUTROE MUSEOA

1930-1939

Horrez gainera, Urdulizek bestelako arazo bati egin behar izan zion aurre: eskolarako sasoian zeuden haurren zenbatekoak gora egin zuen, eta San Ferminen eskola zaharra txiki geratu zen. Hala, horri aurre egiteko, bi auzo-eskola eraiki behar izan zituzten, horrek ekarri zuen kostu ekonomikoagaz.

Gerra Zibilaren harira, “gurera heldu zenean, bizikidetzat ona izan zen, eta hala azaltzen dute bi aldeek, dokumentazioaren arabera”, azaldu du Somokuetok. Gerra garaian, ez zen atxilotetarik izan, eta “errefuxiatuen artean eskuineko jendea zegoen, eta babestu zituzten”, gaineratu du. Hala ere, Francoren soldaduak sartu zirenean, bestelako herri guztietan legez, “atxiloteta ugari burutu zituzten, tartean, udaleko kide guztiak, aguazila barne; eta EAJko eta Emakumeen agintariak ere bai.

Lekukoakaz berbetan

Lan hori guzti hori aurrera eramateko, Somokuetok lekukoaren ahozko testigantzak jaso ditu: “iherketaren parterik bereziena izan da niretzako”. Lelukoza horiek oso garrantzitsuak izan dira historialariarentzat, datu-bilketaren nondik norakoak prestatzeko. “Artxiobotan informazioa bilatzeak ere sorpresa handia eragin dit, bereziki Ferrolgo bi artxibok: Ipar-Ekialdeko Zatikako Artxibo Militarrek eta Itsas Artxiboak”, azaldu duenez, “horietan, gerraosteko zapalkuntza frankistaren ondorioz izandako epaiketaren gehienak agertzen dira”. Horien bitartez, Urdulizko 50 pertsonen epaiketen berri jaso dute.

Bestalde, orduko argazkiak lortzeko arazoak izan dituela aitortzen du Somokuetok. Irudiak jasotzeko, prozesu berezia ipini du martxan urduliztarrak, eta

“30. hamarkadakoez gain, 20. eta 40. hamarkadakoak ere jasotzeko” asmoa duela jakinarazi du. Argazkiak helarazteko bidea oso erraza da: Urdulizko kultur etxera hurbiltzea besterik ez da egin behar, bertan argazkiak eskaneatzeko eta digitalizatzeko. Urduliztarrak jakinarazi duenez, argazkiak uzteko epea otsail bukaeran amaituko da. ◀



Bunkerra Santa Marinan. INDALECIO OJANGURENEN ARTXIBOA



Metrailadore-kabia Burdin Hesian, Urdulizen. INDALECIO OJANGURENEN ARTXIBOA



Mundukatuak

Jonally Puzon Capiñahandarra

“Etxe askok du ondoan txerritxoa hazteko etxola”

Areetako Krimea tabernako ostalaria eta sukaldaria da Jonally Puzon, guztiek "Jona" deitzen dutena. Orain 11 urte utzi zuen atzean Capiñahan bere herrixka. Bertan, udal aldizkariko langilea zen eta hilero 5.000 peso eskas irabazten zuen, 100 bat euro. Euro bategaz lau kilo eskas arroz eros daitezke eta bere ustez, "lan egiten da jan ahal izateko". Nekazaritzan eta arrantzan dabilta batez ere hango langileak. Halere, Capiñahan Negurigaz alderatzen du, etxe txikien inguru lasaia delako, portutik hurbil dagoena.

Zer bisitatu

Bada zertaz gozatu Capiñahan barne hartzen duen Bai hirian. Hondartzak ikusgarriak dira eta baso eta menda-teetatik ibiltzen dira turistak. Euskal herritarren eta espainolen esku daude baliabide natural horien erdia baino

gehiago eta zabaltzen ari diren jate-txeak ere atzerritarren jabetza dira, lur gehienak hartzen dituen Central Azucarera de Bais enpresa lege. Bestalde, izurdeak sarri ikusten dira Visa-ya itsasora sartuz gero, eta bisitarien

“Bazkal ostean kafea hartzea absurdoa da; goizean esnatzeko hartzen dugu guk”

gustukoak izan ohi dira. Historia maiten duten turistek ere, hurbil dute Mac-tan uhartea, Fernando de Magallanes esploratzaile portugaldarra 1521eko apirilaren 27an hil zen tokia. Horren ondorioz, Juan Sebastian Elkano getariarrak hartu zuen Gaztelako espedizioaren ardura eta munduari bira ematen jarraitu zuen.

Harritzekoak

Euskal Herritik arreta gehien eman diona txikiteo-giroa da, tabernaz taberna ibiltzea. Herrian ez dute edate-girik, jatetxe eta janari azkar saltoki bana soilik. Tabernak aurkitzeko probintziako hiriburura, Dumaguetera, joan behar dute, autobusez ordu batera. Gainera, gaueko 6:00etan etxean daude jada, afaltzen, goizeko 6:00etan esnatu eta gosaltzeko: ogia. Otordu horretan besterik ez dute jaki hori probatzen. Entsaladak ere arraro xamar egiten zaizkio. Irlan batez ere arroza jaten dute, arrainaz edo okelaz lagunduta; eta Gabonak, Independentzia Eguna eta bestelako egun seinalatuetan txerrikumeaz gozatzen dute, etxe askok daukatelako ondoan txerritxoa hazteko etxola. Bestalde, bazkal ostean kafea hartzea ez du ulertzen. Aldiz, espainolen "ohitura txar" bat par-tekatzen dute gugaz: siesta. ◀

NOR DA

Nongoa

Capiñahan herrikoa

Adina

34

Zertan dabil

Ostalaritzan lanean

Ikasketak

Kazetaritza

Noiztik Euskal Herrian

2004an heldu zen, izeko batek lagunduta. Areetako etxe batean jardun zuen, bi umeren barneko jagole eta ingeles irakasle. 2009tik ostalaritzan dabil

NONGOA DA



Lurraldea

Filipinak

Azalera

300.000 km²

Hiria

Bais. Ekialdeko Negros probintzian, Negros irlan. Filipinetako erdialdean, Visayas eskualdean

Biztanleria

60.000

Hizkuntzak

Tagalo da hizkuntza nazionala. Halere, ingelesez ikasten dute hezkuntza maila guztietan, tagalo ikasgaia dela. Beste 19 "eskualde hizkuntza" dute ezagutza ofiziala, baina hezkuntzatik baztertuta daude. Capiñahanen Cebuano (21 milioi) mintzatzen da, Visaya hizkuntzetako bat

Dirua

Peso filipindarra

HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoen 16, 2. solairua 48991 GETXO
e-Posta: hiruka@hiruka.eus
Posta Kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Julen Nafarrate, Iñigo Fernandez de Martikorena, Irantzu Sagarmingoa

Argazkiak:

Hodei Torres
Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri
Sustapena: Erika Martinez eta Ziertra Merino
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege Gordailua: BI-2022-2014
ISSN: Eskatua
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak:



Komunikabide honek Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso ditu